

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2023-10-06 OSTIRALA / 878. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Iraunkortasunari, Kalaska

Elikadura eta nekazaritza iraunkorrerako ezinbestekoa den azpiegitura izanen da Kalaska kooperatiba, tokiko abeltzaintzari eta merkataritzari lehentasuna emanen dion proiektua. Horretarako Etxarri Aranazko hiltegia biziberritu dute

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Bukatzean da. Ia bost urteko lanaren ondoren arduradunak haien ahaleginaren fruituak ikusten hasi dira. Hasi dira piezak bere tokia hartzen. Aurrerik puzzlea osatuta ikusteko aukera izanen dute, dugu: Kalaska kooperatiba. Haren oinarria Etxarri Aranatzeko dagoen hiltegia eta aldamenen duen zatikatze gela da.

Aurrera egin aurretik, Kalaska izena eta bere esanahia argitzea komeni da. Etxarri Aranazko Udaleko garapen zinegotzi Arkaitz Errazkin Beltzak azaldu duenez, "Kalaska Sakanako euskararen fale edo zintzarri mota bat da. Abereak mendian edo gure larretan bazkatzen dutenean non dauden jakiteko balio diguna, beraz, abeltzaintza estentsiboaren eta artzaintzaren sinbolo da. Horri esker badakigu jaten duguna nondik datorren eta nola hazia izan den. Gainera, falearen soinua entzuteak landa eremua bizirik dagoela gogorarazten digu".

Etxarri Aranazko alkate Maria Saez de Albeniz Bregañak azaldu duenez, "hiltegiari buelta bat eman nahi genion, eskas genbiltzan". Nerea Viana Zugadik, Sakanako Garapen Agentziako (SGA) elikadura arduradunak, zehaztu duenez, "beharrezkoa dugun azpiegitura hori biziberritzeko eta berregituratzeko aspaldi ari gara lanean. Urteen poderioz hiltegia bidegurutzeko

batera iritsi zen: jarduera asko jaitsi da, bakarrik animaliak sakrifika zitezkeen eta hiltegiak zerbitzu falta zuen. Aldi berean, sektorean behar bat identifikatu genuen, eta hura eskatu zen: haragia eraldatzeko azpiegiturak, azpiegitura publikoak, eskuragarriak eta baliagarriak direnak", jakinarazi du Vianak. Bi errealitate horiek kontuan hartuta sortu dute proiektu berria, Kalaska kooperatiba, udalak SGAK, Belardi elkarteak eta ibarreko harakinek. Kooperatibak garrilaraz geroztik kudeatzen du hiltegia.

Egitasmoa Sakanako Estrategia Planean jasoa dago. "Ibarreko nekazaritzako elikagaien sektorearendako inbertsio estrategikoa" dela nabarmendu du Vianak. Gaineratu duenez, "aski probatuta dago hiltegi txiki bat ixten denean horrek kate guztian eta inguruko ekonomia eta gizarte ehunean domino efektua duela: negozio txikien ixtea, minoristengan eragina, esplotazio txikien kostuen igoera, bertako arrazen galtzea eta abar". Horregatik, Vianak azpimarratu du hiltegiak "landa eremuko ekonomiaren iraunkortasunerako funtsezko engranajea" direla. "Onurak sortzen dituen zerbitzu publikotzat ulertu behar dugu, animalien ongizaterako, paisaiaren zaintzarako, osasun publikorako eta ingurumenerako", nabarmendu du.

Orain arte bere haragia zatikatu eta ontziratu nahi zuten abeltzainek ezin zuten horrelakorik egin Etxarri Aranazko hiltegian. "Bertatik animaliak osorik ateratzen dira (behiak eta ardiak). Beraz, hori eraldatzeko edo bakoitzak bere azpiegiturak ditu, edo ezinezkoa zen. Zuzeneko salmenta egiten dutenek zatitzea Iruñean, Gipuzkoan edo urrun egin behar dute", azaldu du teknikariak. Vianak gaineratu duenez, "gaur egungo hiltegiak behar-beharrezkoak dituzte zatikatze guneak, baita, esaterako, hestekiak, tripakiak eta hankak-eta garbitzeko instalakuntzak". Premiak identifikatuta, "dirulaguntza batzuk jasota, goitik behera aldatu dugu planteamendua", azaldu du Saez de Albenizek. Alkateak jakinarazi duenez, proiektua landu den bitartean hiltegiak ez du aterik itxi.

Eraldaketa eta onurak

Errazkinak azaldu duenez, abereak hiltzeaz aparte orain haragia zatitu eta ontziratzeak aukera eskainiko du azpiegitura berriak, "zatikatze gelak gero salduko diren produktuak prestatzeko aukera ematen du". Errazkinak gaineratu duenez, "Hilabete batzuek barru hiltegiak zaldiak eta zigilu ekologikoa duten abereak sakrifikatzeak aukera ere eskainiko du". Saez de Albenizek gaineratu duenez, "hestebeteak eta sabelkiak lan-



Nerea Viana Zugadi elikadura teknikaria, Jesus Balda Mercero artzaina eta Arkaitz Errazkin Beltzak

tzeko aukera izanen da. Handik txistorrak, tripakiak eta beste atera daitezke". Vianak egin daitekeenaren adibide gehiago eman ditu: haragi xehatua, saltxitza freskoak, txistorra... "Aukera anitzak ematen ditu zatikatze gelak. Baina hori ez da lehentasuna".

Errazkinak esan duenez, "etxalde txikiek aukera izanen dute zuzeneko salmentan pausoak emateko. Hori errazteko pentsamenduarekin egin da". Vianak azaldu duenez, "artzainek beraien ekoizpena dibertsifikatzeko aukera dute. Alde batetik, oso gazta ona egiten dute, baina arku-meak, garaia denean, zuzeneko salduz gero, horrek ere beste diru etekina eman diezaioteko esplotazioari, eta pixka bat gehiago hobetu beraien ogibidea eta bizibidea". Gaineratu duenez, harakinak ere onuradun izanen

dira: "hiltzen dituzten animaliak zatika harategira eramateko aukera ematen die, nahi balute hezurak han kentzeko aukera izanen lukete. Gaur egun ez da erraza harakin gazte batek, lehen bezala, txekor guztia zatitzea eta abar. Zoritxarrez, gero eta harategi gutxiago ditugu, jubilatzen ari dira".

Teknikariak jakinarazi duenez, "aziendaren parte handi bat zuzeneko bitartekariari saldu eta kanpora doa. Esan duenez, "hiltegia hemen ekoizten dugun haragia hemen kontsumituko dela ziurtatuko duen elementu bat izatea nahi dugu. Tokiko merkataritzak balio erantsia dauka hemengo saltzen badu. Aldi berean, gurea denari balioa ematen diogula erakusten dugu kanpora begira".

Proiektuaren sustatzaileek badakite jende askok abeltzain-



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Etxarriko garapen zinegotzia.

tza zaletasun gisa duela, "eta gustatuko litzaioke horretan lan egitea. Horretarako erraztasunak jarri behar ditugu. Hori da pixka bat gure lana, eta horretan gabil-tza", azaldu du Vianak. Osasun arloa ere aipatu du alkateak: "oso oso kontrolatuta dago abeltzaintza: albaitariak daude, Nafarroako Gobernuak gainean dago. Dena txukun-txukun egiten da. Apustu egin nahi da bertako abeltzaintza bulkatzeko. Jaten dugun haragiaren trazabilitatea argitzea eta ziurtatzeko. Denok jan osasuntsua eta, gainera, konfiantzako izateko".

Atzerapena

Saez de Albenizek azaldu duenez, "proiektua dezente atzeratu zai-gu". Izan ere, Nafarroako Gobernuak 2018an emandako laguntza ez zen esperotako kopurura iritsi. Proiektua ez zen kaxoian gelditu eta lanean segitu zuten. Alkateak aurreratu du "berehala" zabalduko dela. Gaineratu duenez, "eman zizkigun behar genituen baimen guztiak, baina Nafarroako Gobernuak moldaketa txiki batzuk eginarazi dizkigu. Hori egin ondoren, ti-ta hasiko gara", jakinarazi du Saez de Albenizek.

Bertan lanean hiru abere-hiltzaile ari dira. Eta aurki beste langile bat izanen da: arduraduna eta proiektu dinamizatzailea. Alkateak azaldu duenez, Carasso fundazioak dirulaguntza eman die, "eta horri esker aukera izanen dugu urte eta erdirako pertsona bat kontratatzeko. Pertsona hori bilatzen ari gara orain". Bere egitekoak izanen dira, besteak beste: hiltegia martxan dagoenean, prozesua kontrolatu; hobekuntzak egin; zatitze gunea martxan jarri, ongi funtzionatu dezan; proiektuaren zabal-kunde lana; jatetxeak eta dendak bisitatu... Kalaska kooperatibaren proiektuaren berri zehatza (funtzionamendua, bazkide nola egin eta baldintzak, tarifak eta abar) Sakanan herriz herri emateko asmoa dute, baita inguruetako herrietan ere. Lastailean proba batzuk egingen dituzte. Ardiak aurki umatzen hasiko dira, arkumeak eguberri

"PROBATUTA DAGO HILTEGI TXIKI BAT IXTEN DENEAN GUZTIAN DOMINO EFEKTUA DUELA"

kanpainarako saltzeko garaia iritsiko zaie artzainei. Ardura-dunek esan dutenez, ordurako zatikatze gela prest izanen da.

Kooperatibaz

Vianak azaldu duenez, kooperatiba publiko-pribatua da. "Gaur bazkide dira Etxarri Aranazko Udala, SGA, eta bere bitartez beste udalak ordezkaturik daude, bost abeltzain eta hiltegian lanean ari direnak langile bazkideak dira". Udaletik jakinarazi dute Kalaska kooperatibako bazkide izateko bi modu daudela. Bazkide erabiltzaileak abeltzain profesionalak izanen dira, tamaina txikiko etxaldeak eta artzaintzan oinarritutako abeltzaintza egiten dutenak. Bestetik, bazkide kolaboratzaileak daude: herritarrak, dendak, harategiak, jatetxeak, elkarteak, enpresak eta udalak. "Denden parte hartze maila zein izan beharko lukeen zehazten ari gara", jakinarazi du teknikariak. Bestalde, bazkide izan gabe ere hiltze eta zatitze zerbitzuak eskuratu daitezke.

Saez de Albenizek jakinarazi duenez, "bazkide izateko aukera zabalik dago". Teknikariak jakinarazi duenez, bazkide iza-

teko estatutueta jasotako irizpideak bete beharko dira: "laburbilduz, nekazaritza herrikoi eta iraunkorrean lan egiten duten abeltzainak eta bestelako eragileak izan daitezke bazkideak. Sakanan ahalik eta ekoizle gehien egotea bulkatu nahi dugu; txikiak, eredu iraunkorra eta abeltzaintza estentsiboa lan egiten dutenak. Betikoa, herri batean nahiago dugu hamar etxalde txiki egotea, handi bat baino", nabarmendu du Vianak. Bazkide izateko eskaerak egin edo hitzordua hartzeko 616 003 384 telefonora hots egin edo mata-derosakana@gmail.com posta elektronikora idatzi behar da

Cocoreado

Viana Europako Cocoreado proiektuko kide da. Haren baitan kontinenteko nekazaritza eta akademia elkarteak daude. Proiektuak landa-eremuetako gazteek irtenbide berritzaileak sor ditzaten sustatzen du, nekazari eta abeltzainendako oztupoak gaituztenak, kontsumitzaileen beharrak zuzentzen dituztenak eta tokiko elikagaiak eskuratzeko baldintzak hobetzen dituztenak. "Bertan Europako hainbat gazte elkartzen gara, guztiak lehen sektorearekiko eta elikadura jasangarriarekiko pasioa dugunak. Prestakuntza saioak eta topaketa batzuk egin ditugu. Haietan bakoitzak bere proiektuak aurkeztu ditu. Beste laurekin batera, Kalaska kooperatiba 'hazi ekimen' gisa aukeratua izan da. Aitortza da", azaldu du teknikariak. 40 proiektu aurkeztu ziren.

Teknikariak esan duenez, proiektuan parte hartzeak "balio izan digu, lehenengo eta behin, prestakuntza txiki batzuk egiteko, dirulaguntza txiki bat jaso baitugu. Bestalde, beste esperientzia batzuk ezagutzeko aukera izan dugu. European gai hori pil-pilean dagoen gai bat dela ikusi dugu. Ez gaude errotuta. Bide onean goaz. Bestetik, aditu askoren eskutik asko ikasi dugu: proiektuari nola forma eman, bideragarritasuna nola eman eta halako gauzak".

"ETXALDE TXIKIEK AUKERA IZANEN DUTE ZUZENEO SALMENTAN PAUSOAK EMATEKO"

"Bertakoei gurea eman nahi diegu"

JESUS BALDA MERCERO
ARTZAINA

Kalaska kooperatibako kideak azken prestaketekin daude.

Zergatik zara bazkide?

Saltzen ditugun ardi eta arkumeak Burgosera, Logroñora, Segoviara eramaten dituzte. Guk bertan hil eta bertan saldu nahi ditugu, bertako jendeari gure produktua eman nahi diegu. Apika Sakana oso txikia da, baina Iruñera edo Goierriara, inguruan, saldu nahi dugu.

Ez zaude gustura?

Guk talde batean eta enkante moduko baten bidez saltzen diegu bitartekariari. Baina, azkenean, haren menpe zaude. Harrek zehazten du: hainbeste eguberri, hainbeste bestean...

Jartzen dituen prezioekin, harrapatuta zaude. Guk arkumea hil eta banatu nahi dugu.

Zer prezio dira?

Gastuak estaltzeko. Gure produktuari prezio duina eman nahi diegu.

Sektorea erakargarri egiteko modua da?

Asmoa hori da. 5 abeltzain gaude, baina atek edozeinendako zabalik daude. Hau abeltzain gazteendako garrantzitsua da. Bere produktuak eta arkumeak bizitzeko moduko prezio batean saltzeko aukera izanen du.

Zer erabilera egingen duzu?

Momentuz, arkumea zatitu, gure produktua merkaturatzeko. Dena martxan hastea izanen da, hanburgesak eta beste egiteko aukera baitago. Arkume denboraldia azaro-abendu aldera hasiko da eta ordurako martxan egonen da. Lan gehiago jarriko diegu gure buruari, baina, beno, mereziko du.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

"Helduak bakarrik", benetan?

Hotelak, hegazkinak eta orain tabernak ere bai. Hemen, nire lehen zutabeen bogan dagoen "negozio" berria (Karibearen 70ko hamarkadako, baina moda guztiak bezala, bueltan da). Helduak bakarrik, letra larrietan eta neonez jartzen dituzten negozioak. Bezeroak harrapatzeko "haurrez libre". Benetan?

Zergatik sortzen ari dira horrelako zerbitzuak? Legezkoa al da? Legediak hotelei edo antzeko ostatuatan adingabeei sartzea debekua baimentzen ez duen arren, helduendako leku eskusibo gisa iragartzeko baimena ematen du. "Thesaldi erromantikoetarako aproposa" argudiatuz. Bazterkeria, luxuz mozturrotuta.

Tabernak, aldiz, ez dute sarrera debekatzen, baina ez dituzte ez trona, ez haur menuak eskaintzen eta tabernarien begiradak... Modu naturalean, hautespén naturala bezala, familiok ez ditugu horrelako jatetxeak aukeratzeko. "Haurrak ez" ezkutuko eta eguneroko keinuak.

Ez al dago gure gizartea (eta berez, gu ere bai) beste behin ere, gizon, txuri, heldua ez den, beste norbaitekin bizitzeko prest? Elkar bizitzeko prest?

GUK HAURRAK BAZTERTZEN BADITUGU, ZER EGINGO DUTE HAUR HAUEK HELDUAK DIRENEAN?

Honek guztiak agerian uzten duena da, gure gizarteak, benetan, haurren lekua duen ala ez. Eta ez naiz parkeez, eskolez edo eskolaz kanpoko jardueraz ari.

Azken hausnarketa bezala, guk haurrak baztertzen

baditugu edo gure gizartearen eraketa eta eraldaketan kontuan hartzen ez baditugu, zer egingo dute haur hauek helduak direnean? Nahi ala ez nahi, egiten duguna eta ez esaten dugunarekin, haurren eredu gara.

Astebururako gonbidapen bat: makurtu eta mundua, haurren begiekin ikusteko betaurrekoak jarri.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Frontex-en aurrean zer?

ANITZARTEAN SAKANAKO KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Zer da Frontex? Europar Batasunaren mugetarako agentzia da. Bere aurrekontua %7.560 gehiago igo da 2005 urteaz geroztik. Polonian hasi zen agentzia txikia, orain Europar Batasuneko agentziarik handienetakoa da.

Bere talde propioa erosi dezake: barkuak, helikopteroak, droneak... eta arma eta zaintza enpresak indartu.

Giza eskubideak sistematikoki bortxatzen dituen agentzia da. Nola? Laburbilduz:

- Mediterraneoko eta Balkanetako mugak kontrolatzen ditu, eta zuzeneko harremana dauka itzulera ilegalean (zeinetan indarkeria fisikoa ematen den) eta pertsona migratzaileekiko indarkerian.

- Libiako kostazainei prestakuntza eskaintzen die. Oroitu Libian esklabotza indarrean dela eta pertsona migranteak kontzentrazio kanpamenduen antzeko baldintzetan "bizi"? direla.
- Migrazioa mehatxu gisa definitzen du, eta bere kontakizunak, arrazakeria, bazterkeria, islamofobia, eta xenofobia besterik ez ditu indartzen.

Europa Gotorlekuaren politika militarizatuek 40.555 pertsona baino gehiago hil dituzte 1993 geroztik: Mediterraneoko itoak,

zentroetan bere buruaz beste eginak, mugetan tiroak, deportazioen ondotik torturak eta hilketak...

Frontex ez da sekula ideia ona izan. Mugen kontrolak ez datoz bat mugimenduan dauden gizakien eskubideekin. Arrazakeria indartzen duen politikarako "arma" eraginkorra dira. Tamalez, pasa den irailaren 20 eta 21ean Iruñeko Baluartan elkartu zen Frontex-eko agentzia bat.

Frontex-en aurrean zer? Frontex bera suntsitu; deportazioak eta atxilotetako gelditu; mugen militarizazioak eta mugitzen diren pertsonen zaintza gelditu; elkartasuna indartu; mugimendu askatasuna guztiondako. Bide seguru eta legalak migratzeko eta nazioarteko babesa jasotzeko. Uretan erreskate humanitarioa blindatuko dituen politikak bultzatu eta indartu.



OBJEKTIBOTIK



Basozainak / Guarderío de Medio Ambiente
@Guardas_na

Garai honetan, udaberriaren jaiotako sai txitoak habiatik salto egiten dute. Esperientziarik ezaren ondorioz, askok aireratu ezin duten lekuetan amaitzen dute. @Guarda_na ohar publikoari erantzuten die haiak erreskatatzeko eta leku egoki batera eramateko.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Arbizuko Udaleko, Andra Mari ikastolako eta Nafarroa Oinez fundazioko kideek sinatu zuten hitzarmena. UTZITAKOIA

Oinez Basoa lankidetzan garatuko dute

Horretarako hitzarmena sinatu dute Nafarroa Oinez fundazioak, Andra Mari ikastolak eta Arbizuko Udalak. Arbizuko Oinez Basoa 2009an sortu zen. Han landaketak eta mantentze lanak eginen dira, baita xenda eta begiratokiak ere

ARBIZU

Nafarroa Oinezek sortzen duen ekologia aztarna gutxitzeko modu gisa proposatu zuen Patxi Lakuntzak Oinez Basoa egitea. Hau da, ospakizunaren lekuan ingurumen kalitateko lekuko iraunkor bat uztea. Andra Mari ikastolak ideia bere egin eta aurreneko Oinez Basoa Arbizun sortu zen 2009an. Beraz, Oinez Basoa jasangarritasunari lotutako ekimena da, eta jai eredu iraunkor baterantz egitea helburu duena.

Nafarroako ikastolen festaren lekukoa, atzera ere, Andra Mari ikastolaren esku dago. Eta harekin batera, Oinez Basoaren lekukoa. Ikastolakoek Arbizuko basoa garatzea erabaki dute. Hori egin ahal izateko, proiektuan inplikaturako hiru erakundeek hitzarmena sinatu dute: Nafarroa Oinez fundazioak, Andra Mari ikastolak eta Arbizuko Udalak. Horren arabera, ikastolak landaketak eginen ditu basoan, zehazki: 80 haritz, 20 astigar, Galiziatik ekarritako 20 gaztai-

nondo tratatu eta bertako 5 gaztainondo. Ikastolak landatutako zuhaitzak zaintzeko konpromisoa hartu du. Horretaz aparte, basoan integratuta egonen diren hegazti behatokiak sortuko dira. Bakoitzean 30 lagunendako tokia egonen da, hau da, ikasgela oso bat hartzeko moduan. Izan ere, baliabide pedagogiko gisa ere erabili nahi da ikasleekin bisitak eta bestelako jarduerak egiteko. Gainera, basoaren itxitura konponduko du.

Arbizuko Udalak, bestetik, basoa garbituko du, itxituraren mantentze lanez arduratuko da eta xenda bat ere eginen du. Bestalde, hitzartutakoaren arabera, Andra Mari Ikastolak eta Nafarroa Oinez fundazioak, udalare-

OSPAKIZUNAREN LEKUAN INGURUMEN KALITATEKO LEKUKO IRAUNKOR BAT UZTEN DU OINEZ BASOAK

kin batera, jardunaldi bat antolatuko dute Arbizuko Oinez Basoa mustutzeko eta jendurrean aurkezteko.

Oinez Basoan dauden zuhaitzak babesteko, www.oinezbasa.eu webgunera jo daiteke. Babestu atalaren bidez zuhaitza edota hegazti begiralekua babesteko aukera dago, hamar eurotik hasita.

Hamar baso

Andra Mari ikastolak abiarazi zuenetik, Oinez Basoa proiektuak 16 urteko ibilbidea egin du dagoeneko. Bitarte horretan Nafarroan barna hamar Oinez Baso sortu dira eta, guztira, 51.000 zuhaitz baino gehiago landatzea lortu da. Oinez Basoak gaur egun Arbizun, Tafallan, Tuteran, Zangozan, Baztanen, Andosilla-Sartagudan, Lesakan, Altsasun eta Barindano-Antzinen daude. Arguedasen bederatzigarren Oinez Basoa zegoen. Landatutako zuhaitzak, ordea, ez daude, sute batek erre baitzituen.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Badira pare bat urte erosketak egitera joan, eta ustekabeko eder bat izan nuela: kotoizko poltsa bat oparitu zidaten! Poz-pozik jarri nintzen ezustean poltsa bat jaso nuelako, erosketak modu jasangarriagoan egiteko erabilgarria dena. Hala ere, ni ez nintzen izan poltsa jaso zuen bakarra; beste komertzio batzuetan ere hainbat bezerori banatu zizkieten.

Poltsari erreparatu eta Sakanako Mankomunitatearen Zero zabor komertzioa leloa ageri zela ohartu nintzen. Sakanako Mankomunitateak hondakinen murrizketa indartzeko duen programa da hori, eta hainbat komertzioarekin izandako elkarlanari esker jasangarritasunerako berme bat ere bada. Programa honek tokiko komertzio txikiak ditu ardatz, hiri hondakinen prebentzioan funtsezko eragileak baitira. Nolanahi ere, komertzioen parte hartzea borondatezkoa da.

Programak honako helburu hauek ditu:

- Komertzio txikiak eta bertako bezeroek erabilitako ontziak eta bilgarriak gutxitzea, berrerabil daitekeen materiala banatzen den aldetik.
- Ostalaritzan elikagaiak alferrik galtzea murriztea, tupper konpostagarriak banatzen baitira.

Bi hitzetan esanda, batetik hondakinen murrizketa hauspotzen da; eta, bestetik, kontzientzia eta praktika egokietarako euskarria da.

Zurrunmurrak entzun ditut aurten ere horrelako sorpresa onekin topo egin dezakegula diotenak. Beraz, ez dago gehiegizko hondakinak sortzeko aitzakiarik. Adi egon Zero zabor komertzioa eranskailua duten komertzioei, horiek hondakinak ondo kudeatzen baitituzte. Eman diezaiegun aukera bat!

Mank
s a k a n a



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Nafarroako Hondakinen Funttsak finantzatu du. Hondakinen Funttsa bereizi ez diren hondakinak zaborregian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Iñigo Aritza ikastolako ikasleek kalejiran parte hartu zuten. IÑIGO ARITZA 25 URTE LIBURUA

Diputazioak Nafarroako ikastolen festa antolatzen zueneko

Euskararen biziberritzeak hauspo handia hartu zuen joan zen mendeko 60. hamarkadan. Haren haizeak Nafarroako Diputaziora iritsi ziren hainbat euskaltzaleren bidez. Euskararen aldeko saila sortu zen eta zenbait urtez eragile bizia izan zen

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA Larunbatean, lastailaren 7an, 50 urte beteko dira Altsasuk Nafar Hizkuntzaren Eguna hartu zuela. "Nafarro guzitik etorritako ikastoleen muttiko eta neskattoak bilduko dira EUSKAL MINTZAERA, EUSKARA goratu eta altxatu beharrez". Hala iragarri zuen *Diario de Navarra* Nafar Izkuntzan Orria atalean bi egun lehenago. *Nafarroa 'ko ikastolen besta* izenburua zuen artikuluan gogorarazten zen aurreneko edizioa Orreagan izan zela. "Orduko 'Principe de Viana' elkartearen euskararen aldeko saillaren burua zen Jorge Kortez Itzal jaunak besta hau hasmatu zuen Nafarroako Diputazioaren baimen osoa lorturik", jakinarazten zuen. Artikuluan nabarmentzen zenez, Diputazioak "elkargoaren bitartez, bere babesa, laguntza eta itzala

IKASTOLEEI ematen dizkie argi erakutsirik".

Ospakizunaren bezperan, 1973ko lastailaren 6an, egunkari bereko Altsasuk korrespondentsalak, Belarrak, zehaztasunak eman zituen. Diputazioak antolatatu bai, baina "egitaraua aurrera ateratzeaz 'Gure Etxea' toki erakundea arduratuko da". Belarrak azaldu zuenez, ospakizunak "berriki hasitako festak, hala ere, sakon sustraitu da probintzian". Aurreikuspenak ere egin zituen: "Probintzian barna Diputazioaren euskara atalak zabalik dituen ikastole-

"DIPUTAZIOAK DITUEN IKASTOLETIK ALTSASURA 1.500 BAT IKASLE ETORRIKO DIRA"

tatik Altsasura 1.500 bat ikasle etorriko direla kalkulatzen da. Talde bakoitzak bere dantzariak, bertsolariak, txistulariak, gaitariak, errondallak ekarriko ditu. Beraz, gure lurreko haur taldea protagonistak duen benetakoa festa nafarra espero da". Altsasun eskualdeko bi diputatuak izanen zirela aurreratu zuen: Jesus Ezponda eta Ignazio Irazoqui. Ospakizunaren eguneko artikuluan Belarrak jakinarazi zuenez, "heldu den ikasturtean Altsasuko ikastolak lokala mustuko du: telefono konpainiak eskola zaharretan utzitakoa".

Lastailaren 7ko Zeruko Argia aldizkarian ospakizunari buruzko zehaztasun gehiago eman zituzten: "egun hau Lizarran eratzekoa zen joan zeneko ekainean, baina Iruñeko lantegi hauziak zirela eta, atzeratu egin bide zen. Orain, berriz, zergatik

ez dakigularik, udako hiru hilabeteen buruan, Lizarratik Altsasura iragan zaigu jai egun horren ospakizuna". Eta gaineratu zuen, "hamazazpi ziren iaz Nafarroako ikastolak, edota, hobeto esan, Nafarroako hamazazpi herritan ziren ikastolak, zenbait herritan ikastola bat baino gehiago bait zegoen". Haien zerrenda ere eman zuen: "Elizondo, Leitze, Lekunberri, Huarate Arakil, Etxarri Aranatz, Altsasu, Olazti, Olague, Jaunsaras, Eugi, Zubiri, Larrasoaña, Gurralda, Aoiz, Estella, Tafalla eta Iruñea".

Ospakizunaz

Mariano Izetaz egunari buruzko kronika argitaratu zuen *Zeruko Argian* 1973ko lastailaren 28an. Hona: "Eguraldi ederrarekin ospatu zen Altsasu-ko herrian 'Nafar Izkuntzaren Eguna'. Urriaren lebiziko igandea nafar euskaltzaleentzat zorionekoa izandu da.

Nafarroako Ikastoleetako milla ta bostehun aurtxo beren gurasoekin bildu ziren Altsasun denak elkarte zoragarrian kantuz eta dantzan egun gogoangarria iraganik.

Goizeko ameketan Euskal Meza. Elizkizun hunkigarria bereharian Urdiain-go kantariak abesti zoragarriak agertu zizkigutelarik. Meza emaille Aita (Julian) Ezeiza jaunak hitzaldi eder bat eginik gure mintzaira gorai patu zuen. Eliza bete bete.

Meza ondoren dantzari taldeek Altsasu-ko karriketetan barna ibillaldi labur bat eginik denak plaza Nausian bildu ziren, ibilaldia gisa hontan eginik: Denen aurretik Altsasuko 'Gure Etxea' Batasuneko dantzari-txikiak, gero Aoiz, Baigorri, Zintruenigo, Lizarra-ko 'Larraindantza', Jaurrieta eta Iruña-ko Taldea. Ondotik txistulari taldeak: 'Obereña', Zangotza, Olazti, Tafalla, Urdiain eta Erroko ballarakoak. Gero Altsasu-ko alkate jaunak (Jose Herrera) agur bat egin zuen denei ongi-etorria ematen. Ezponda jaunak hitz ederrak esanik Nafarroako egiazko mintzaigoraipatu zuen azkenean

"DENEK BOZKARIOA BIHOTZETAN NABARI ZUTELA EGUNAK ESKATZEN ZUEN BEZALA"

denei eskerrak emanik euskarazko hitzekin. Azkenik eta goizeko festa burutzeko 'Obereña' Batasuneko txistulari taldeak joaldi ederra egin zaukun Aita Hilari zenaren ohoretan eta harek moldatutako soñuarekin.

Bazkaria 'Burunda' frontoian. Ikastoleetako aurtxoak beren gurasoekin, dantzari taldeak, txistulariak eta kantariak denak bildurik. Bazkalondoan bazen kantu, soñu, irri eta iauzi. Dantzari taldeak eta kantariak ere aritu ziren atsegingarri, denek bozkarioa bihotzetan nabari zutela egunak eskatzen zuen bezala. Jose Angel Irigarai jaunak zuzendu zuen besta.

Arratsaldean plaza nausian berrito jaiari lotuak eta orai koan bertsolariak entzun genituen. Oreja eta Klemente bi kobleri nafartarrak kantaldi ederra eginik, Euskera, Nafarroa, Ikastolak, Aurtxoak eta Euskal-Herria goraldtu zituzten. Ondotik berriz ere Dantzari-Taldeak festari alaitasuna eta indarra ematen ziotelarik.

'Nafar Izkuntzaren Eguna' holaxe joan zaigu eta biltzar hontaz oroigarri on bat daramagu geren bihotzetan. Zorionak Nafarroako Diputazioari bera baita jai honen antolatzaile, bere babesean bait-ditugu Ikastolak eta berak bait-ditu zaintzen eta laguntzen! Hala behar ere! Diputazioaren baitan daukagu geren siñestea eta hartan dago gure itxaropena eta Ikastolen etorkizuna. eta orain gauzak gerta daitezela zuzentasun garbian batere itxipurik gabe. Lan guziak izan daitezela euskararen onerako denek zuzentasunaren hildotik jarraituaz, denok elkarturik eta denen artean Nafartarren egiazko mintzaira piztu eta indartu dezagun".

Belarrak lastailaren 9ko kronikan "aparteko giroa nafar erromerian" nabarmendu zuen titularrean. Eta "Nafarroako hizkuntzaren festari" buruzko datuak eman zituen 24 autobus kontatu zituen, "09:30ean iristen hasi zirenak". Ospakizunaren koordinazio bulegoa Gure Etxea eraikinean jarri zuten. Meza elkarrekin eman zuten Ezeizak, Inozentio Aierbek, kaputxino batek eta konpasionista batek. Plazan Gure Etxeako dantzari txikiak Zortzikoa dantzatzu hasi zuten eguerdiko emanaldia. Arratsaldean Urdaingoek herriko Zortzikoa dantzatu zuten.

nafar
PRES

Asociación de la
Prensa Local de Navarra

Nafarroako Tokiko
Prentsaren Elkartea



II. TOKIKO PRENTSA JARDUNALDIAK

CIVICAN, URRIAK 16

Izen emateak





Astearteko aurkezpenen hizlari eta entzule izan zirenak. Eskuinean Gemma Merino Zardoya, elkarteko teknikaria.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Bere burua aditzera emateko Nafarroako Fundazioak, Nafarroako fundazioen elkarteak, bost topaketa antolatu ditu herrialdean barna. Aurrenekoa Altsasuko Iortia kultur gunean izan zen, asteartean. Bilkuran fundazioen ereduaren eta bere inguruari egiten dion aberastasun ekarpena ezagutarazi zen. Aldi berean, Komunitate Fundazioak zer diren ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Guztiei harrera Javier Ollo Martinezek, Altsasuko alkateak egin ziren. Ondoren Felipe Lezea fundazioko kudeatzaile Angel Gardachal Ausenjak osasun eta ongizatearen bidez egiten duten ekarpenaren berri eman zuen. Segituan, kultura eta balioak gai hartuta, **GUAIXE FUNDAZIO**ko kudeatzaile Goizeder Anton Iturraldehartu zuen hitza. Azkenik, Komunitate Fundazioen berri elkarteko teknikari Gemma Merino Zardoyak eman zuen.

Merinok azaldu duenez, "Altsasun gaude elkarte Ceder-na-Garalurreko kide egin delako, lurraldera, entitate eta pertsonengana, hurbildu nahi dugu horrela". Teknikariak azaldu duenez, gaur egun elkartean 28 fundazio daude. "Fundazio publikoak (Nafarroako Gobernurenak) eta pribatuak (pertsone juridiko eta fisikoenak) daude. Elkartean hainbat sektoretan aritzen diren fundazioak daude: ikerketa, kirola, kultura, korporazioenak... Eta kideen artean

Nafarroako fundazioen elkarteak bere burua aurkeztu du

Nafarroan barna egiten dituen bost topaketetan "tokiko garapenari fundazioek egiten dioten ekarpenari ikusgarritasuna" eman nahi dio. Aldi berean, Komunitate Fundazioen eta korporazio boluntarioen berri eman nahi du

denetariko tamaina duten fundazioak daude. Hitz batean: aniztasuna. Hori da nagusi elkartean".

Azaldu duenez, elkarteak 2012an sortu zen, "fundazioei ikusgarritasuna eman eta erakundeekin elkarriketarako tresna gisa". Jauzia 2022an etorri zen: "Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu eta elkarteak langilea kontratatu zuen. Ondorioz, elkartearen jardura dinamizatu zen, jarduerak sistematikoki antolatzen hasi zen eta egonkortasuna lortu zen".

"IKUSGARRI EGIN ETA ERAKUNDEEKIN ELKARRIZKETARAKO TRESNA GISA SORTU ZEN ELKARTEA"

Teknikariak nabarmendu du elkartearen jarduna Nafarroako gizarte ekonomiako bigarren estrategia planean jasotakoarekin lerratuta dagoela. Gaur egun Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua Departamentuarekin dute harremana. Plana bera, hitzarmena eta gobernuak gizarte ekonomiari eskainitako departamentua izatea mugarritzat jo ditu.

Eginkizunak

Nafarroako Fundazioak elkarteko kide diren erakundeek bi arlotan laguntzen die. Alde batetik, fundazioaren kudeaketaren profesionalizazioan. Teknikariak horren adibide gisa Felipe Lezea fundazioan gertatutakoa jarri du: "kudeatzaile profesionala sartu eta lau urtetan aldaketa handia izan du. Jasangarria da

eta hazkundera jarri du". Eta, bestetik, fundazioko patronoek babesa ematen die. "Fundazioaren lidergo dira eta borondatez ari diren pertsonak dira", azaldu du Merinok. Hasierako bi helburuak ere indarrean dira: fundazioei ikusgarritasuna ematea eta haien elkarriketa bidea izatea.

Nafarroako Fundazioak elkartearen eginkizunetako bat da erakunde eta pertsonen arteko lankidetzaren sustatzea. Elkarlana nahi dute elkarteekin, gizarte ekonomiako erakunde guztiekin, herritarrekin... "Kide diren fun-

"KOMUNITATE FUNDAZIOA ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOAREN TRESNA BAT DA"

dazioen kezka ekonomia jasangarritasuna da".

Komunitate Fundazioak

Teknikariak azaldu duenez, Komunitate Fundazioak "Erantzukizun Sozial Korporatiboaren tresna bat da, gizarte berrikuntzari lotuta dago, eta Nafarroan ez da ezezaguna. Baliabideak identifikatu eta erakartzen ekarpena egin dezakete". Gaineratu duenez, "modu on bat enpresak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak harremanetan jartzeko". Merinok zehaztu duenez, Komunitate Fundazioak "irabazi asmorik gabeko erakundeak dira. Haien helburua da laguntzen dutenei laguntza ematea. Fokua lurraldean jartzen dute eta zer egin daitekeen aztertzen dute, irabazi asmorik gabeko zer erakunde dauden. Hortik abiatuta lankidetzaren sustatzea eta elkarlan topaketak sortzen dituzte. Lankidetzaren materiala izan daiteke, baina ezagutza partekatuz lagundu daiteke ere".

Horrela, komunitatea indartzen eta artikulatzen laguntzen da, interes komuneko beharrak ase eta ekimenak bulkatzeko baliabideak eta eskumenak bideratuz. Erriberan enpresen eta irabazi asmorik gabeko lankidetzaren hori badago, "ongi funtzionatzen du eta beste eskualde batzuetara esportatu daiteke".

Merinok lankidetzaren horren adibideak eman ditu: migratutako haurrak ikasketetan atzean ez gelditzeko Tuterako fundazio batean gaztelania eskolak ematen dituzten irakasle jubilatuak; energia eraginkortasuna hobetu nahi duen fundazioan enpresa bateko teknikariak egindakoa; patronatu-takoren kideen belar-naldi aldaketa egiteko laguntza; jakintza bat duen enpresako langilea fundazio batean laguntzea; kanpaina zehazterako boluntarioen premia duten fundazioak... "Enpresak eta fundazioa harremanetan jarrita, boluntarioak sor daitezke. Baliabideak erakartzea da. Ez da bakarrik dirua, langileak utziz lagundu daiteke fundazioa. Laguntzeko modu asko dago. Nahi izatea, eta aukera egotea da kontua". Korporazio boluntarioak lirakete horiek. Merinok dioenez, lankidetzaren horrekin enpresek ere irabazi egiten dute: "irudia, langileak beste gaitasunetan trebatzen dituzte, lurraldera lotzen dira..."

Azaroaren 30eko greba feminista prestatzen

Sakanako Mugimendu Feministak data gorde, deituko diren mobilizazioetarako adi egon, eta greba egiteko arrazoiak eman ditu, tartean zaintza sistema publiko eta komunitario baten beharra aldarrikatzea

SAKANA

Martxoaren 8an Altsasun egin-dako eskualdeko manifestazioan iragarri bezala, azaroaren 30ean, ostegunarekin, greba feminista orokorra deitu da. Besteak beste, zainduak izateko eta zaintzeko eskubidea aldarrikatuko da, zaintza sistema publiko eta komunitario baten beharra.

Urtebete baino gehiago pasa da Euskal Herriko Mugimendu Feministak *Denon Bizitzak Erdigunean* prozesua martxan jarri zuenetik, "zaintza sistema iraultzeko" asmoz. Bide horretan, zaintza sistemaren ezaugarritzearen inguruko jardunaldiak antolatu zituzten, eta 2023ko martxoaren 8an azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo zela iragarri zen.

Zaintza jarri da, beraz, erdigunean. "Gure ustez, zaintza pertsona guztiendako bizimodu duina eraikitzeko ezinbesteko oinarria da, bizi prozesu osoan ezinbestean behar duguna, baina gaur egungo sistemak zaurgarritasun egoeran jartzen gaitu, bi funtsezko alderdi ez dituelako kontuan hartzen: izaki sozialak elkarren menpekoak gara; eta naturaren osagai garen neurrian, ekologikoki menpekoak gara" azaldu du Sakanako Mugimendu Feministak.



Sakandarrei etorriko diren deialdietan parte hartzeko deia egin diete. ARTXIBOA

Feministen irudikoz, kapitalismoak, heteropatriarkatuak eta kolonialismoak krisi ekosozial globala eragin dute. "Bizitza akabatzen duen sistema baten aurrean gaude, bai pertsonen bizitzak, bai natura bera".

Zaintza irauli

Zaintza zerbitzuak "gero eta pribatizatuago" daudela salatzen du mugimendu feministak, eta "familia heteropatriarkala erdigunean jartzen duten politikak" ari direla erabiltzen zerbitzu horiek ez garatzeko. "Eta bada-

kigu gure etxeetan nortzuk hartzen duten zaintza lanen ardura nagusia: etxeko langile gehienak emakumeak dira, bertakoak nahiz beste herrialde batzuetatik gurrera etorri direnak".

Horregatik, "zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua" egin nahi dute, "pertsona guztiek, askatasunez eta konpromisoaz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidearen alde egin". Azaroaren 30eko greba orokorrean zaintzarako eskubide kolektiboa izango da aldarrikapen nagusienetakoa.



Eskakizunari jendeak harrera ona egin dio.

Sinadurak, adinekoendako bizitza duina izateko

Haien bidez Nafarroako Gobernuari eskatuko diote 1080 eurora iristen ez diren pentsioak osatzeko

SAKANA

Zahartzaro duina bermatzeko pentsiodunek hilero gutxienez 1.080 euro jaso behar dute, urtean 14 ordainketa. Hala uste dute 1080 euro orain herri ekimeneko sustatzaileek. "Gaur egun hori ziurtatzeko modu bakarra Nafarroako erakundeek aurrekontuen bidez konpromisoa hartzea da, 1.080 eurora iristen ez diren pentsioak osatzeko". Horretarako 60 milioi beharko lirakeela azaldu dute. Gaztigatu dutenez, erabakiak 32.000 nafarri eraginen lieke, %66 emakumezkoak. Sinadura bilketa sustatu duen herri ekimenekoek gaineratu dutenez, "borroka hori errenta bermatua handitzeko eskaerarekin lotzen da, zailtasun ekonomikoak dituzten familiei gutxieneko diru sarrerak ziurtatzen diena. Horrela, bazterketa arriskuan duten pertsonen diru sarrera duinak ziurtatuko zaizkie

bizitzako etapa guztietan, aberastasuna banatzen lagunduz".

Eskaera horri babesa emateko herri ekimenak sinadura bilketa hasi du. Sakanako pentsiodunen mugimenduko kideek irailaren 27an ekin zioten horri. Haien asmoa da Altsasuko azokan asteazkenero sinadurak biltzeko mahaia jartzea 11:00etatik 13:00etara. Jakinarazi dutenez, Nafarroa Oinezen ere sinadurak biltzeko mahaiak jarriko dituzte. Herri ekimenak, bestalde, pentsio duinen aldeko eskaera kalera aterako du azaroaren 11n, larunbata, Iruñeko Baluartetik 12:30ean abiatuko den manifestazioaren bidez.

Sustatu dute: CGT, COESPE Navarra, EHNE, EILAS, ELA, Ernai, ESK, LAB, mugimendu feminista, pentsiodunen mugimendua, Pentsionistak Martxan, Oneka, Nafarroako Osasun Plataforma, Reas eta Sasoia.

TOKIKO PRODUKTUAREN 8. ASTEA

Nafarroako kalitateko eta hurbileko elikagaien 45 ekoizle baito gehiago Gazteluko plazan. Eta horrez gain, dastaketak, pintura-lehiaketa, zinema-eta gastronomia-zikloa, eta familia osoarentzat jarduerak.

www.semanadelproductolocal.com
Iruña / 2023ko urriaren 9tik 15era



0 km
SAKANAKO
GIDA

**FRUTA DENDA
BAT BEHAR DUZU?**

<https://guaixe.eus/gida/>



Sakanako Energia Berriztagarriko Komunitatea sortzeko bilerak Lakuntzako kultur etxean eginen dira. SGA

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Energia Berriztagarrien Komunitateen berri emateko hitzaldi bana egin ziren Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Altsasun udaberrian. "Prestakuntza saioak izan ziren. Energia Berriztagarrien Komunitateak zer diren azaldu genuen. Eta, horrekin batera, zein dauden aukera dauden argitu", esan du Zuhaitz Areitio Rementeriak Sakanako Garapen Agentziako (SGA) proiektu arduradunak. "Saio haien balorazio ona egin genuen, jendeak Energia Komunitate Berriztagarriari buruz asko entzun duela, baina zer den ez dakielako. Garbi gelditu zen. Jende dextek interesa azaldu zuen". Saio haien ondoren, irailaren 28an, Sakanako Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko aurreneko bilera egin zen Lakuntzan.

Eta zer dira Energia Berriztagarrien Komunitateak? "Europako zuzentarau batek arautzen ditu. Erakunde juridikoak dira. Berez, irabazi asmorik ez duten elkarte edo kooperatibak izan behar dira, energiaren inguruko jarduerak eginen dituztenak; printzipioz, energia berriztagarriekin. Baina ez da bakarrik energia hainbat bideren bidez sortzea. Eraginikortasuna, energia gastuaren murrizketa, birgaitzea, mugikortasuna... Energia inguruko edozein aktibitateak egiteko aukera dago. Beti ere, helburua da bazkideei eta herritarrei gizarte, ingurumen eta

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko pausoak ematen hasita

Azaroa akabera bitarteko lau bileretan landu daitezkeen proiektuak zehaztuko dituzte. Eten baten ondoren, ilbeltzean komunitatea sortzeko prozesua hasi eta udaberriko egina izatea espero da. Edozeinek parte har dezake bileretan

ekonomia onurak ematea", laburbildu du Oier Etxebarria Gutierrezek, Goienerreko kideak. Goiener eta Emun ari dira Sakanako Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko prozesua dinamizatzen. Horretarako, SGAK Nafarroako Gobernuarena den Nasuvinsa enpresaren Life Nafarroa dirulaguntza jaso du.

Komunitaterantz

Ibarrean halako komunitate bat sortzeko prozesu abiarazi du SGAK. Bilerekin hasi aurretik udalei eta enpresei galdetegi bidali zien. "Erantzun asko

"PROIEKTU IDEIAK BIDERAGARRIAK DIREN HURRENGO BILERETAN AZTERTUKO DUTE"

jaso genituen, gaiak sortzen duenaren interesaren seinale direnak. Dauden aukerak aztertze prest daude", azaldu du Areitio. Erantzun haiek kontuan izanik, Lakuntzako aurreneko topaketan "espero baino jende gutxiago" izan zen, 17 pertsona, "herritarrak eta udal eta enpresa ordezkariak". SGAKoak jakinarazi duenez, "guztira bost saio izanen dira, zer punturaino iristen garen jakiteko. Azaroa bukaera bitartean bi astero elkartuko gara. Tarte horretan erabakiak hartzen hasiko gara. Ondoren, abenduan gelditu eta hausnarketarako tarte hartuko dugu. Eta ilbeltzean komunitatea sortzeko pausoak ematen hasiko gara, erabakitzen den entitate mota sortzen hasiko gara". Ilbeltzetik aurrera dinamizatzailen lana akonpainamendua

bihurtuko da. Udaberriko bileretan nahi dute prozesua.

Areitio azaldu duenez, hazten ikasten dinamikaren bidez joanen dira pausoak ematen hurrengo lau bileretan. Aurreneko beste herri batzuetan dauden hainbat komunitate ereduren berri eman zieten parte hartzaileei. Ondoren bildutakoek Sakanan egin daitezkeen proiektuen ideia zaparrada egin zuten. Mugikortasunaren, energia aholkularitzaren, biomasaren, biogasaren, instalazio fotovoltaikoen, hidroeletrikoen eta eolikoen inguruko proposamenak

"BEHINGOZ, HERRITAR GISA, ENERGIA TRANTSIZIOAN GAUZAK EGITEKO AUKERA DUGU"

mahai gaineratu zituzten. Zalantzak ere: eskualdean ados jartzeko zailtasuna, proiektuen kokapena, eraikin historikoek duten babesagatik instalazioak jartzeko zailtasunak... Proiektu horiek bideragarriak diren hurrengoetan aztertuko dute.

Aurreneko bileran Sakanako Energia Berriztagarrien Komunitatearen talde motorra sortu zuten. "Haren eginkizunak azaldu ziren. Aurrerago hiru lantalde sortuko ditugu: legeez eta administrazioa arduratuko dena, komunikaziokoa eta proiektuena. Norberak aukeratuko du zeinetan sartu. Eta etxeko lanak izanen dituzte. Lehen saioa jendeak pozik bukatu zuten".

Aukera

Areitio esan duenez, "behingoz, herritar gisa, energia trantsizioan gauzak egiteko aukera dago. Energia mendekotasuna dugu. Orain arte enpresa batzuen prezioen menpeko izan gara. Orain hori atzean uzteko lege tresnak daude eta baliatu behar dira". Horregatik, sakandarrak hilaren 17an, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxera joatera gonbidatu du. "Berdin du aurreneko saiora joan ez izana. Bilerak bi astero izanen dira, lau falta zaizkigu".

Egitasmoari buruzko informazioa nahi dituztenek proiektuak@sakanagaratzen.com posta elektronikoko helbidera idatzi dezake. Bestalde, informazioa zuzenean telefonoan jaso nahi duenak, informazio zabalkunderako sortu den Whatsapp taldea eman dezake izena. Horretarako, hona mezua bidali behar du: [labureus/gNaXs](https://www.whatsapp.com/channel/00299a44018100000000000000000000). "Mezuak jasotzeko da bakarrik, ez du mezuak bidaltzeko balio", gaitzatu du Areitio.





AEK-ko irakasleak euskaltegian klaseak prestatzen. Aitziber Irigoien, Idoia Artieda, Patxi Flores eta Amaia Iparragirre.

"Saiatzen gara giro goxoa sortzen, gustura etortzen dira"

PATXI FLORES LAZKOZ SAKANAKO AEK-KO ARDURADUNA

Lastailarekin batera hasi du AEK-k ikasturtea. Zalantzan dagoenak, oraindik ere euskara ikasteko izena eman dezake

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanako AEKn euskara ikasten 135 bat ikasle daude 16 taldetan banatuta. Ikasturtea asteartean eta asteazkenean hasi zuten taldeek: Irurtzunen 4, Etxarri Aranatzen 1 eta Altsasun 11. Zortzi irakasle ari dira ikasle horiek guztiak eskalduntzen.

'Euskara hurbil, zu urrun heltzeko'. Bai, aurtengo matrikulazio kanpainaren leloa da. Jendeak jakin dezan hemen gaituztela euskara ikasi edo dakitena hobetu nahi badute. Edo mintzakide

programan sartu nahi duenak beti aurkituko duela lagun bat. Ikasle kopuru txukuna daukagu, kanpainak eragina izan du, urruneko jendea ere hurbildu zaigu.

Zer moduzko hasiera izan da?

"BATAZ BESTE, MATRIKULAREN KOSTUAREN %85 KOBRTZEN DUTE IKASLEEK"

Irail akabera eta lastaila hasiera beti zaila izaten da, nekagarria. Ikusi dugu matrikulazio kanpainaren emaitza txukuna atera zaigula. Nekagarria izanda ere, aurrera egin dugu, eta behin ikasturtea hasiz gero, errodamentuek aurrera egiten dute, nahikoa ongi olioztatuta daude. **Jendea euskara ikasteko gogoz?** Bai. Pertsona batzuek goi mailan luze daramate. Erdi mailan ere. Horiek gure oinarria dira. Aurten hasiera mailako hiru talde sortu ditugu: 2 Altsasun, goizean

eta arratsaldean, eta Irurtzunen arratsaldez.

Hezkuntza sistemak ezagutza zabaldu duenez, halako taldeak sortzea zaila da, ezta?

Gazteren bat tarteka hasiera edo erdi mailetara etortzen zaigu, baina gazteak C1, EGA, ateratzen etortzen dira. Hasiera mailetara, eta beste mailetara ere, gero eta jubilatua gehiagok ematen dute izena. Hasiera mailetan jubilatua eta kanpoan jaiotakoak daude aurten. Bestela, batzuk etortzen dira lan egin ondoren euskara ikastera.

Jubilatuena. Zahartze aktiboa? Edo iloben zaintza?

Batzuek euskara ikasteko nahia gordeta izan dute. Lana, ilobak... Momentu batean esaten dute: tarte hau niretako da. Jendeak ikasten du. Batzuei gehiago kostatzen zaie, besteei gutxixeago. Baina batzuk terapia gisa etortzen dira; ez dakit ilobek lan handia ematen dietelako... Gure helburu nagusia euskara irakastea da. Baina saiatsen gara giro goxoa sortzen, eta gustura etortzen dira. Giro ona dago, eta hurrengo ikasturtean etortzen dira. Azken urteetan hori lortu dugu: garagartzaroan aurrematrikula kanpainatxo egiten dugu, hurrengo ikasturterako zein asmo duten jakiteko. Askok, ehunen batek, segitzeko asmoa zuela esan zuen. Uste dut zeozer ongi egiten dugula, jendeak zeozer ikasten du eta gustura etortzen da. Aurrematrikula merkexego dela dakiten batzuek ere, sei bat pertsonak, garagartzaroan eman dute izena. Irailean hasiera eta beste maila batzuetakoak etortzen dira matrikulatzen. Klaseak hasi eta gero beti etortzen da jendea, batzuek dagoen eskaintza ikusi ondoren. Edo beranduago, lanagatik edo beste kontu batzuegatik.

Sakandar berriek ere AEKra bidea ikasi dutela esan duzu.

Bai. Kanpotik bizimodu hobeeagoa edo duina lortzeko etortzen dira. Baina euskararen munduan sartzeko denbora eta diru pixka bat behar duzu. Izena emateko lehenbizi ordaindu egin behar da. Baten batek beti

"BERANDUAGO ETORRITA ERE, JENDEAK AUKERA IZANEN LUKE TALDEAN SARTZEKO"

esaten digu matrikula ezin dela ordaindu. Egonkortasun sozial eta ekonomikoa pixka bat behar dute salto txiki bat egiteko. Espainia aldetik etorri direnak, errazago, hain salto handia ez delako. Gu saiatsen gara ordaintzeko bideak errazten. Aurten edo joan den urtean iritsi diren batzuk etortzen zaizkigu, bertan euskara hitz egiten delako, edo euskara nabarmenago dagoen Arbizun edo Etxarri Aranatzen bizi direlako. Aurten hiruzpalau unenuar ditugu. Euskara ikasi nahi dute jendearekin euskaraz hitz egiteko.

Matrikula pagatu behar da, baina dirulaguntzak ere badaude?

Nafarroako Gobernuaren, Sakanako Mankomunitatearen eta udal batzuen dirulaguntzak daude. Gutxieneko asistentzia badu, ikasleak laguntza jasotzen du. Mankomunitateak hasi zen. Horrekin matrikularen %40-50 ordaintzen zuten ikasleek. Jendeak euskara ikastea nahi zuten udal batzuen dirulaguntza osagarria ematera animatu ziren. Azkenik, Nafarroako Gobernuak hasi zen, hasieran oso partida kaxkarrak ziren. Gobernutik joan zen urtean erdia kobratu zuten (ordainketa udan), Mank-ena pixka bat jaitsi da (iraila-lastaila). Batzuek beste, matrikularen kostuaren %85 kobratzen dute ikasleek. Udalek ematen badu (lastaila-azaroa), ia-ia osoa. Jakinda hasieran inbertsio hori egin behar dela.

Doaktasunerako pausoak ematen ari dira.

Hori da. Matrikula ordaindu behar da, baina gutxienez ziurtasuna duzu inbertsio egin eta handik urtera berreskuratuko duzula. Urte bat izan daiteke tarte luzea edo tarte motza. Garai batean zati bat bazegoen, baina, Sakanan behintzat, proportzio handian. Beste eskualde batzuetan badago. Iruñetik behera, udal batzuek ere bai. Gero Errigoratik lortzen den dirua... Nafarroan gero eta zabalduago dago laguntzen kontua.

Oraindik ere izena eman daiteke? Bai. Beranduxeago etorrita ere, jendeak aukera izanzen luke taldeetan sartzeko.

Jendea elkartzeko gero, edozein herritar sor daiteke taldea, ezta?

Bai. Izan ere, aurten ez, baina Arruazun talde bat izan genuen. Herritar kuadrilla elkartu zen, udalak tokia, ikasleendako diru laguntzak eta erraztasunak jarri zituen, eta 3 urtez-edo egon ziren.

NAFARROA OINEZ

URRIAREN 8AN ETXARRI ARANATZEN



"Orain halako sentimendu nahasketa daukagu"

Aurkezpen, elkarrizketa, azken egitekoetan buru belarri ari dira Andra Mari ikastolan. Guztia Nafarroa Oinez festa behar bezala atera dadin

Alfredo Alvaro Igoa

Nafarroako ikastolen festa laugarren aldiz antolatu du Andra Mari ikastolak. Urte eta erdiko lanaren emaitza nagusia ikusteko eguna bertan da.

'Hotsein', mezua zabaldu da?

Lelo motz bat nahi genuen, indarra zeukana, zuzena. Ongi joan da, Sakanan eta kanpoan bere funtzioa bete du. Jendeak 'Hotsein' euskararen eta ikastolaren aldeko dei horrekin lotu du.

Jada nekea sumatzen hasten da. Ikastolako komunitateko ia 200 pertsona aktibatu dira, eta urte eta erdi da lanean ari direla. Lan ikaragarria egin da, hasieran barrura begira eta, behin Tafallan lekukoa hartuta, kanpora begira. Dagoeneko "hots egiten" urte bat daramagu. Baina, aldi berean, ilusioa ere. Azkenean, helburua Nafarroa Oinez eguna bera da.

Nahikoa boluntario daude?

Batzarretan modu iraunkorrean 200 pertsona baino gehiago bildu dira, finkoak. Azken hilabete honetan boluntario gehiago behar izan dira. Iganderako ehunka pertsona behar dira. Deialdia egin da eta, oraingoz, erantzunarekin pozik gaude, bai sakandarrera, bai beste ikastoletakoa. Beti dago laguntza beharra. Laguntzeko interesa duenak www.nafarroaoinez.eus web orrian lagundu nahi? atala eskura du. Han sartu



eta galdetegia bete behar da; taldean edo bakarka eman daiteke izena. **Zertako dira aurtengo irabaziak?** Etxarri Aranatzan bertan dagoen ikastolaren DBHko eraikinera bideratuko dira. XX. mendeko 60. hamarkadako eraikin zaharra da, eta zenbait gabezia dauzka. Irigarritasuna hobetzeko igogailua jarri nahi dugu, arrapala ikasturte akaberan jarri zen, isolamendua hobetzeko leihoak, teilatua... berritu. Galdarak ere aldatzeko beharra dauka. Oine-

zek ematen duenaren arabera, gehiago edo gutxiago egingen da. **Orain arte aurreikusitako helburuak bete dira?**

Maila batean, bai. Urte hau hiru mezu nagusi zabaltzeko erabili

"JENDEAK 'HOTSEIN' EUSKARAREN ETA IKASTOLAREN ALDEKO DEI HORREKIN LOTU DU"

nahi genuen. Batetik, arnasguneetako ikastolek duten paperearen garrantzia aldarrikatzea. Gurean ere lan handia dagoelako euskararen biziberritzean; arnasmuneetan ezin gara erlaxatu, zirikatzaille izatea nahi dugu, behar hori ikusten dugulako. Bestetik, ikastolaren izaera herrikoa eta publikoa aldarrikatzea, autogestioan eta auzolanean oinarrituta, herritik sortutakoak dira. Eta, azkenik, ikastola hezkuntza sistema eraldatzailea izanez sortu zen eta horretan jarraitzen du. Helburu horiek zabaltzen eman dugu urtea. Gai horiei buruz jardunaldia egin genuen udaberrian eta euskararen aldeko elkarlanerako mezua azpimarratu genuen.

Andra Mariren hurrengo erronka? Hurrengo erronka potoloena aipatutako lanak egitea da. Aztertu beharko dugu eraikinak dituen behar horietatik, noraino ailegatzaren garen, zer den egingarria. Bestalde, eguneroko lanean dauden erronkak dira: euskararen arloan zirikatzailea izatea. Hezkuntzari lotuta, eraldatzailea. Eta auzolanak. Gure DNAn daude eta haien behararekin segituko dugu. Baina Nafarroa Oinez pasata beste modu batera izanen dela iruditzen zait.

IZASKUN ERRAZKIN BELTZA ANDRA MARI IKASTOLAKO LEHENDAKARIORDEA

Bezperara nola iritsi da Andra Mari ikastolako komunitatea?

Orain halako sentimendu nahasketa daukagu. Batetik, Nafarroa Oinez egun bera bada urte eta erdiko lanaren bukaera eguna.



BATZORDEAK



BABESLETA



EKONOMIA



GRAFISMOA



IBILBIDEA



INKLUSIOA



INGURUMENA



JARDUERAK



KOMUNIKAZIOA

hotsein!



MATERIALA



MUNTAIA



OSASUNGINTZA



OSTALARITZA



PERTSONALA



PROTOKOLOA



SEGURTASUNA

URRIAREN 8AN

KONTAKIZUNA

ZUZENEAN

ETXARRI ARANAZTIK

WWW.GUAIXE.EUS

"Oso proiektu potoloa da Nafarroa Oinez"

Marta Igoa Erro etxarriarrak hamar urte baino gehiago daramatza Nafarroa Oinez festaren antolakuntza koordinatzen; talde iraunkorreko koordinatzailea da

Erkuden Ruiz Barroso

"Tritsi da eguna". Marta Igoa Erro etxarriarra Nafarroa Oinez festaren talde iraunkorreko koordinatzailea da; Nafarroako ikastolen festa antolatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da. Igandean urte bat baino gehiagoko lanaren amaiera izanen da, eta Igoak koordinazio gunetik biziko du. **Zer esan nahi du talde iraunkorreko koordinatzailea izateak?** Nafarroako Ikastolen elkarteak koordinazio talde iraunkorra du. Talde horretan bi lagun ari gara. Urtez urte Nafarroa Oinez antolatatu behar duen ikastolarekin batera joaten gara. Gure eginkiz-

la laguntzea da. Hor sortzen da deitzen dugun Talde Iraunkorra: Nafarroa Oinezi lotuta sortzen diren hamalau batzordeen ordezkariak biltzen dituen taldea. Lehendabiziko lana ikastolara joatea izaten da, batzordeak eratu eta, batzordeak sortu ditugularik, junta iraunkorra sortzea. Junta iraunkorra Nafarroa Oinez motorra izaten da, eta urtean zehar Nafarroa Oinezekin zerikusia duen guztia hor lantzen da; hor hartzen dira erabaki guztiak. Ni talde horren koordinatzailea naiz; hau da, gutxi gorabehera, nire lana.

Ez da lan erraza.

Ez da erraza. Azkenean, jende asko da. Batzordeetan 150 eta 200 lagun artean biltzen dira eta boluntarioak dira denak, ez da erraza. Erroka polita da, baina ez da erraza.

Nolakoa izaten da Nafarroa Oinez antolatzekeo prozesua?

Bada momentu bat bi Nafarroa Oinez zapaltzen direla. Guk heldu den urtean antolatuko duen

ikastolarekin urtarrilean egin genuen lehenengo kontaktua. Ikastolako juntari azaltzen zaio pixka bat zer datorren, kronograma zein den, eta normalean lehendabiziko lana izaten da ikastolak lortu nahi dituen helburuak argi izatea. Ikastolek argi dute zergatik egin nahi duten edo zer helburu duten, baina hori transmititzen jakin behar da ere. Horren inguruko hausnarketa egiten da, eta ondoren batzordeak sortzen dira. Batzordeak oso espezializatutakoak dira, bakoitzak badu lan zehatz bat: komunikazioa, muntaia, grafismoa, materiala, babesletza, ekonomia... Bakoitzak badu bere zeregina. Horren baitan ikastolan profil egokiak identifikatzen dira, familiekin hitz egiten da eta izena ematera eta parte hartzera animatzen ditugu. Behin talde horiek sortzen direlarik, talde bakoitzarekin formazio bat egiten da eta azaltzen zaie sortu behar dugun egitura hori nolakoa den eta lan metodoa, nola lan egin behar dugun urtean zehar: batzordeei zer dagokien, junta iraunkorrak zer egingo duen, koordinazioak zer egin behar duen, prozesuak zeintzuk diren, nola hartzen diren erabakiak, epeak eta abar. Behin hori eginda junta iraunkorra sortzen dugu, batzorde bakoitzetik ordezkari bat izendatuta. Lehendabiziko lana ikastolak finkatu dituen oinarri horiek hartuta leloa eta logoa sortzea da. Komunikazio eta grafismo batzordeak egoten dira, eta lana egin izaten dugu ikasturtea amaitu aurretik. 2024an antolatuko duen ikastolak ekainean bazeukan. Udan arropare-



kin hasten dira lanean azarorako behar dutelako prest izatea, komunikazioa bere lanekin hasten da... Bestetik, batzorde bakoitzari bere lan plangintza propioa egitea eskatzen zaio: nola egin nahi duten lan, zer helburu markatzen duen bakoitzak... Hori ere iraunkorrera eramaten dugu eta onetsi behar da.

Nola aldatu edo garatu da Nafarroa Oinez?

"NAFARROA OINEZ EGUNA NOLABAIT IKASTURTE AMAIERAKO JAI EGUNA BEZALA DA"

"IKASTOLAKO LAGUN PILA BAT LANEAN ETA GIROAN IKUSTEA OSO POLITA DA"

Nik uste urte hauetan gizarteak berak ere garapen potolo bat izan duela, eta ikastolen jaiak ez daude garapen horretatik kanpo. Modu berean bizi dugu. Kontua da Nafarroa Oinez eguna bere garaian egun bakarrek ospakizun bat zela; gaur egun ez. Gaur egun urte betean garatzen den proiektu potolo batean bilakatu da. Hor badira iraunkorrak diren zenbait ekimen eta proiektu. Orduan, urtean zehar ekimen eta jarduera egonkor horiek landu egiten dira: Txikiak Handi ekimena, Oinez Basoa, Artea Oinez... Hor badaude urtero errepikatzen diren ekimenak eta gero badaude gainerako ikasleekin jaiekin batera garatzen ditugun jarduerak, eta ikastola antolatzaileak osatzen duen jarduera programa propioa. Orduan, urtean zehar hori guztia lantzen da eta zeharka zenbait kontu ere. Guk esaten dugu Nafarroa Oinez eguna nolabait ikasturte amaierako jai eguna bezala dela. Horrekin ixten dugu Oinez urtea. Jai giroan eta jatorrian izan zen

MARTA IGOA ERRO NAFARROA OINEZEN KOORDINATZAILEA

zuna, nolabait, Nafarroa Oinez aurrera ateratzeko behar duen egitura osatzeko garaian ikasto-



Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Ikastolan ikasten ez diren gauza asko ere ikasiko dituzte, ezta?

Zalantzarik gabe. Gauza asko lantzen ditugu eta oso dispertsoa da. Gauza askori buruz aritzen gara, eta batzordeetan aritzen direnek izugarri ikasten dute: lan taldean nola lan egin, bakoitzari tokatzen zaion zereginaren baitan gauza asko egitea tokatzen zaizkie normalean egiten ez dituztenak, eta Nafarroa Oinez badarama zenbait ekimen bere gain ikastola antolatzaileak lantzen dituenak: Artea Oinez, Oinez Basoa, Txikiak Handi edo Euskaltzaindiarekin lantzen den jardunaldia. Horregatik, zeharkako bidean gauza asko jorratzen dira. Oso proiektu potoloa da Nafarroa Oinez.

Nafarroa Oinez egunean zer egiten duzu? Disfrutatzeko aukera duzu?

Normalean koordinazio gunean egoten naiz. Patxi segurtasun teknikariak eta biok beti gauza bera esaten dugu: dena prestatzen dugu, dena kontrolatzen dugu, guztia aurreikusten dugu, baina gero egunean bertan ez dugu deus ere ikusten. Zorte pixka batekin koordinazio gunetik gertu irekiera ekitaldia baldin badago, zerbait leihotik ikus dezaket. Baina horrek bat egiten du jendearen sarrerarekin eta trafikoa kontrolatu behar da, aparkalekuak, segurtasunekoe-kin egon... Batzuetan izan dugu bueltaren bat emateko aukera; ez dakit nora joan behar gara eta aitzaki horrekin mugitzen gara. Baina normalean koordinazio gunean egoten gara.

Pena ematen dizu? Zer ikustea gustatuko litzaizuke?

Zalantzarik gabe. Aurten protokoloak bi saio izango ditu: irekiera ekitaldia izango da lehena eta, bigarrena, lekuko aldaketa eta omenaldia. Aurten bereziki pena daukat hori ez dudalako

"ILUSIOAREKIN ETA GOGOAREKIN IKUSTEN DITUZU; HORREK ASEBETETZEN ZAITU"

"DENA KONTROLATZEN ETA AURREIKUSTEN DUGU, BAINA EGUNEAN BERTAN EZ DUGU DEUS IKUSTEN"

ikus behar. Lehena ez dakit ikusiko dudana, beharbada leihotik, baina bigarren horretan badakit ezingo naizela egon, eta izugarriko pena ematen dit.

Zer da koordinatzaile izatetik gehien gustatzen zaizuna?

Gustukoena da urtero lagun bilakatzen diren pertsonak topatzen dituzula, eskualde guztietan. Toki guztietan gaude mota guztietako jendea, eta guztiekin konektatzea ezinezkoa da, baina urtero gertatzen da eskualde batean eta bestean horrelako konexio berezi bat. Jende oso-oso ona ezagutzen duzu. Horiek zurekin betirako eramanen dituzu. Nik eskualde guztietan lagun handiak ditut, oraindik harremana mantentzen dugula. Niretako hori oso garrantzitsua da. Ikustea ere jartzen dituzula dantzan halako giza talde bat, eta ilusioarekin, konpro-

misoarekin eta gogoarekin ikusten dituzu. Horrek pila bat asebetetzen zaitu.

Eta zer da zailena?

Kontrakoa; batzuetan topatzen duzu halako jendea agian taldean lan egiteko ohiturarik ez duena edo beharbada ez dituela prozesuak ongi barneratu eta kosta egiten da berarengana iristea. Baina hori auzokideekin ere gertatzen zaizu. Noski, nire lana kontrolatzea da eta kontu honetan badago momentu bat kontrola galtzen duzuna. Zergatik? Badituzulako babesleak, hornitzaileak... Eta momenturen batean haien menpe zaude; ezjakintasun horrek estres handia eragiten dit.

Zer behar du pertsona batek koordinatzaile izateko?

Uste dut pazientzia behar dela. Antolakuntzarako gaitasuna izan

behar duzu, azkenean denbora guztia antolatzen egotean datza, eta egokitu behar duzu ikastolak duen baliabideetara eta ingurura. Muntai batzordeak urtero lan bera dauka, baina urte batean dagoen muntai batzorde agian datorren urtean ez duzu jende gutxiago dagoelako, gremioa kontrolatzen duen jenderik ez dagoelako eta abar. Egokitu behar duzu, eta egokitzapen horretan zailtasuna izango duzu frustraziorik ez izateko. Jendearekiko enpatia eta lasaitasuna ere izan behar duzu. Iruditzen zait koordinatzailearen lana ere badela jendea zaintzea. Sekulako lana egiten dute batzordeetan, eta horiek lana eta familiak dituzte, eta horien gainetik honetan ari dira. Nire lana ere entzutea bada. Beraz, laburbilduz, lasaitasun, enpatia, gertutasuna eta pazientzia.

moduan, aldarrikapen horrekin. Zikloa ixten dugu, eta hurrengoarekin hasten gara.

Ikasturtearen hasieran urteari amaiera ematen diozue. Nolakoak izaten dira festaren aurreko egunak ikastolan?

Kaotikoa da, baina egia esan esperientzia handia dugu eta nahiko bideratuta dago dena. Orain mundu guztia buru-belarri ari da; urtean zehar badatorrela ikusten duzu, baina orain badago. Ikasturte hasierak nahiko nahasiak izaten dira edozein ikastetxetan, eta gainera gu saltsa honekin guztiarekin sartzen gara. Altsasuko Nafarroa Oinez antolatu genuenean bertako ibilbide buruak esaten zidan: "Marta, hau potaje handia da. Hitz hori askotan erabiltzen dut ordutik: potajea, potaje bat da. Baina potaje oso polita. Familiak, langileak, ikasleak, familia ohiak, langile ohiak, ikastolako lagun pila bat eta abar lanean eta izugarriko giroan ikustea oso polita da. Oso hunkigarria eta pozgarria.

Gazteak ongi pasatzeko, Erronka

Nafarroa Oinezen dena ez da zirkuituari bueltak ematea izanen. Aisialdi aktiboko eskaintza da Erronka, gazte taldeak elkarrekin lehiatzen jartzen dituen

Nafarroa Oinez eguneko egitarauko aurreneko jardueretako bat da Erronka. Lehengo eremuan, Utzubar Txikin, 10:00etan, abiatuko da. Ondoren, zirkuituko beste bi eremuetatik pasako da Erronka. 11:00etan Arluzepe izanen da eta 13:00etan Erronkak azken saioa izanen du 3. arean, Batzetan. Nafarroako ikastole-tako dozena bat talde neurtuko dira, eta haien artean Sakanako bi ikastole-tako hiru talde daude. Parte hartzaileak DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak dira. Andra Mari ikastolako Sugaitz Bumiller Ormazabal eta Lexuri Lazkoz Ruiz talde banatan ariko dira eta Iñigo Aritza ikastolako Haizea Lopez de Goikoetxea La Torre eta Beñat Andueza Etxaiz taldekideak izanen dira.

Erronka zer den galdetuta, Bumillerrek azaldu duenez, "proba fisikoak eta dira. Hainbat proba dira eta horiek guztiak egin behar dituzte taldeek". Anduezak zehaztu du lau direla, buruarekin eta ariketa fisikoaren bidez egin behar dira". Lazkozek proben inguruko argibideak eman ditu: "Nafarroa

Oinezen Youtubeko konturabideoak igo dituzte, probak nolakoak diren ikusteko. Orain oso ongi ikusten dira. Baina, beharbada, egiten hasi eta zailagoak dira". Bumillerrek esan duenez, "hasieran badirudi ez direla oso zailak, baina zailtasun puntu bat dute". Lopez de Goikoetxeak azaldu duenez, aurreneko proban "taldekide batzuk etzan eta gainean makil bat jarriko diete. Buelak emanez puntu batera eraman beharko dugu makila. Hurrengoan arropa ibaian sartu eta ura lortu behar dugu. Beste bat orekarekin lotutakoa da. Eta azken ginkana moduko bat da". Andra Marikoek eta Iñigo Aritzakoek esan dutenez, ez dute entrenatu. "Aurrekoan asko entrenatugenuen", gogoratu du Anduezak. "Hala ere, berdin-berdin saiaturako gara irabazten", ziurtatu du Lazkozek. Bumillerren taldean saria "lortzea espero" dute. Lopez eta Anduezak ere irabaztea espero dute. Lehia, beraz, ziurtatuta dago.

Ezaguna

Erronka ezagutzen dute. "Nik beti ikusten ditut, horrelakoak

ikustea asko gustatzen zait", esan du Lazkozek. Lopez de Goikoetxea joan zen urtekoa ikusi zuen, "baina oso goiz hasten zenez, atzene-ko bi probak besterik ez genituen ikusi. Oso giro polita zegoen. Eta lehiakortasun puntu hori gure-tako aberasgarria da". Bi mutilek aurreko urteko Erronkan parte hartu zuten, Tafallan. "Autobusez joan, gosalduta eta ondoren eremuz eremu probak egiten joaten gara", azaldu du Bumillerrek. "Nahikoa lehiakorra" dela gaineratu du. Anduezak gogoan du "hasieran hotza" egiten zuela, "baina gainontzeko probetan oso gustura. Esperientzia polita izan zen". Hala ere, Lazkozek aurtengo Herri Urratseko Erronkako eskarmentua du: "Erronka berezia egin zuten eta joan nintzen. Bestela, hau nire aurreneko aldia da". Erronka bukatzean sariak banatuko dituzte antolatzaileek.

Lopez de Goikoetxea parte hartzeko gogoz dago. Aurrekoetan parte hartu dutenek "beti gauza positiboak aipatzen dituzte. Esperientzia oso polita dela, bizitzeko modukoa". Parte hartzeko gogo handitu egin zaio Lazkozi aurreko Erronketan parte hartu dutenen kontakizunak entzun ondoren: "ongi egon zirela esaten dute, esperientzia asko gustatu zitzaie. Eta errepikatzeko modukoa dela esan didate". Iñigo Aritzakoek ikaskide eta lagunaren animoak espero dituzte, "pankartekin ez dakit joanen diren, baina animatzera bai", ziurtatu du Anduezak. Bumillerrek esan duenez, "taldekideak animatuta daude. Jakin-mina dute". Andra

ANDRA MARI IKASTOLA



Lexuri Lazkoz Ruiz eta Sugaitz Bumiller Ormazabal.

IÑIGO ARITZA IKASTOLA



Haizea Lopez de Goikoetxea La Torre eta Beñat Andueza Etxaiz.

Marikoek lagunaren babesa eta animoak izanen dituzte Erronkan zehar.

Taldeak osatzeko zozketa egin zuten Andra Mari ikastolan, "parte hartu nahi genuen asko geundelako", azaldu du Lazkozek. "Aurreneko zozketan niri ez zitzaidan tokatu. Baina bi pertsona joan zirenez, atzera ere zozketa egin zuten eta taldera sartu nintzen. Bigarren Erronka da eta gogotsu nago", esan du Bumillerrek. Iñigo Aritza ikastolan

ere zozketa egin dute. Talde ba-koitzak dozena bat kide ditu.

Hiru taldeetakoak elkar ezagutzen dute, baina gainontzekoak ez dituztela ezagutzen aitortu dute. "Lagun berriak egitea, jende berria ezagutzea eta euskara sustatzeko asmoz" joanen direla aurreratu du Lopez de Goikoetxeak. Erronka despeditu ondoren plana aurreratu du Bumillerrek: "bazkaldu eta kontzertuetara, ongi pasatzera". Gainontzekoek asmoa berretsi dute.

ERRONKA

10:00 1. FROGA 1. GUNEAN

11:00 2. FROGA 2. GUNEAN

12:00 3. FROGA 2. ETA 3. GUNE TARTEAN (3. GUNEAREN ONDOAN)

13:00 4. FROGA 2. ETA 3. GUNEAN

14:00 SARI BANAKETA (3. GUNEAN)



Fundizio zentrifugoa

Etxarri Aranatz | 948 46 03 81



www.inoxnaparra.com

EGITARRAUA

URRIAK 7

11:00 ARTISAUAK ETA TALOAK
12:00 DIANAK TXISTULARIEKIN
13:00 ETXARRIKO ERRALDOIAK
13:30 SWING SAIOA
16:30 BERRIAREN ESKUTIK POTX PAILAZOA
"BESTAZ BESTA"
18:30 PISSO ETA OPH RAPEROAK
19:30 ANE MARTIJA
20:30 THE SAKAMANTEKAS

3 BATZETA

11:00 KIKI, KOKO ETA MOKO
12:00 BERRIAREN ESKUTIK LUR
KORTA IPUIN KONTALARIA
13:00 ERRONKA
14:00 ERROKA SARI BANAKETA
14:30 ALERTA GORRIA
16:00 NAFARROA 1512
17:30 GOZATEGI

EGUNEAN ZEHAR
GAZTE PROBALEKUA

1 UTZUBAR TXIKI

10:00 IREKIERA EKITALDIA
10:00 ERRONKA
10:30 SAKANAKO ERRALDOIEN
KONPARTSAK
11:00 KAIKUREN ESKUTIK TIK-TAK
TXUKUN! IKUSKIZUNA (11:00,
11:45, 12:30)
13:00 EITB GO!AZEN
14:00 THE POTES
15:30 THE TRIKITEENS
17:00 DJ BULL

EGUNEAN ZEHAR

HAURREN HIRIA
LABORAL KUTXA HAUR JARDUERAK
AURPEGI MARGOKETA

2 ARLUZEPE

11:00 ERRONKA
12:00 HERRI KIROLAK
13:00 TAPIA ETA LETURA
14:30 OSKIA, DANTZA PLAZA
16:00 ALARMA MOREA
17:30 TRIKIDANTZ

EGUNEAN ZEHAR

DIARIO DE NOTICIAS HAUR JARDUERAK
EUSKALTELEN KUKAINA BIZIKLETAZ
EROSKI FUNDAZIOA HAUR JOLASAK

ZIORDIA

IRURTZUN

"Nire bizitzak Andra Mari ikastolari lotuta jarraituko du, hil arte"

Nafarroa Oinezko omenduetako bat izango da Andra Mari ikastolako Jesus Senar irakasle ohia, herri kirolean ezinbesteko lana egiten jarraitzen duena

Maider Betelu Ganboa

Unanuarra jaiotzez, Altsasura ezkondu zen Jesus Senar Aristorena Andra Mari ikastolako irakasle ohia. Ohia, nolabait esateagatik, ikastolari lotuta jarraitzen baitu. Hurrekin sokatira eta herri kirolak lantzen aitzindaria izan zen, eta egun Andra Mariko herri kirol taldeak prestatzen jarraitzen du. Nafarroa Oinezko omenduetako bat izango da.

Ez bereziki. Kirola beti izan da nire bizia, elementu garrantzitsua. Gaztetan ere futboleko jokatzen nuen, pilotan... Kirolean denetarik egin dut, eta gustura aritu naiz irakasle. Ikasleei boleibola, hockeya, saskibaloia, herri kirolak... denetatik irakatsi diet.

Ikastetxean herri kirolak lantzean aitzindaria izan zinen. Gainera, haurren arautuak ziren txapelketak ez zeudenez, ikastolen artean sokatira txapelketak antolatzen hasi zineten.

Andra Mariko taldearekin Lizarra, Jaso eta Paz de Ziganda ikastoletara gindoazen sokatiran aritzera.

Geroago, Gernikara eta Donostiara joaten hasi ginen OHoko 7. eta 8. mailako ikasleekin. Guk berpiztu genituen haurren herri kirolak, garai hartan ez baitziren haur eta gazteen txapelketak egiten. Gaur egun zoragarria da Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatzen dituen Nafarroako Herri Kirol Jokoen

parte hartzea. Txapelez beteta dugu ikastola. Hiru edo lau txapela ekartzen ditugu urtero. **Noiz jabetu zinen herri kirolak sustatzearen beharraz?** Nire gurasoak nekazariak ziren, eta hor lotuta zegoen dena. Abeltzainak eta nekazariak, soroak... beti lotuta egon dira herri kirolekin. Eta horregatik. **Lehendabizi sokatira izan zen.** Bai. Ikastolaren aurreko zuhaitzari soka lotu eta han ibiltzen ginen entrenatzen (kar, kar...). Gutxika, sokatiraz gain, gainontzeko herri kirolekin hasi ginen. Bestalde, ikastolen artean ere Ikaspilota lantzen genuen, pilota topaketak. Gaur egun ere egiten dira. **Munduko txapeldun izan zen Sakana Sokatira Taldea ikastolatik sortu zela esan daiteke.** Noski baietz. Belen eta Nerea Lizarraga ahizpak eta talde har-

"GUK BERPIZTU GENITUEN HAURREN HERRI KIROLAK, ORDUAN EZ BAITZIREN TXAPELKETAK EGITEN"



roako Herri Kirol Jokoen parte hartzea. Txapelez beteta dugu ikastola. Hiru edo lau txapela ekartzen ditugu urtero.

Noiz jabetu zinen herri kirolak sustatzearen beharraz?

Nire gurasoak nekazariak ziren, eta hor lotuta zegoen dena. Abeltzainak eta nekazariak, soroak... beti lotuta egon dira herri kirolekin. Eta horregatik.

Lehendabizi sokatira izan zen.

Bai. Ikastolaren aurreko zuhaitzari soka lotu eta han ibiltzen ginen entrenatzen (kar, kar...). Gutxika, sokatiraz gain, gainontzeko herri kirolekin hasi ginen. Bestalde, ikastolen artean ere Ikaspilota lantzen genuen, pilota topaketak. Gaur egun ere egiten dira.

Munduko txapeldun izan zen Sakana Sokatira Taldea ikastolatik sortu zela esan daiteke.

Noski baietz. Belen eta Nerea Lizarraga ahizpak eta talde har-

tako tiratzaile gehienak sokatiran ikastolan hasi ziren. Euren entrenatzaile izandako Jokin Razkin arbizuarra ere sokatiran nirekin ibili zen. Elkarrekin landu genuen.

Noiz jubilatuta zinen?

2017an. Nire semeak, Mikelek, hartu zuen nire tokia.

Jubilatuta bai, baina Andra Mariko taldeen prestatzaile izaten jarraitzen duzu. Ez dago modurik zu ikastolatik botatzeko.

(Kar, kar...) Ni gustura nago, eta haurrak baita ere. Hori oinarrikoa da. Gorputzak jarraitzen duen bitartean, segi egurra ematen. Aurrekoan Oinez Erronka

"ORDUAN ETA ORAIN, JENDEA KONTZIENTZIATUTA DAGO ETA OINEZEN LAGUNTZEN DU"

Txikian egon ginen. 160 ikaslek parte hartu zuten, eta zoragarri pasa zuten. Herri kirola da kirolik garbiena, gustukoena eta eztabaidarik sortzen ez duena. Kirol sanoa da, eta hurrek izugarri bizitzen dute.

Nafarroa Oinez bezperan gaude. Zenbat bizi izan dituzu?

Guztiak. 1981 urtean egin zen lehenengoa, San Pedron, Iñigo Aritzak eta Andra Marik elkarrekin antolatutakoa. Igandekoa Andra Marik antolatzen duen bosgarrena izango da. Bestalde, Iñigo Aritzako guraso izan naitenez, Iñigo Aritzakoak antolatutako lauretan ere lan egin dugu.

Igandean Nafarroa Oinezera Hotsein egin dizute, baina ekitaldi berezi batera. Omenduetako bat izango zara.

Iñigo zuzendariak esan zidan: "Jesus, irakasle guztion artean pentsatu dugu zu izango zarela omendua". Pozik eta eskertuta nago, omenaldi berezia delako. Hunkituko al naizen? Baietz pentsatzen dut. Zer esan ere pentsatu beharko dut.

Atzera begirada eginez, zer sentitzen duzu?

Nik aurrera begiratzen dut, etorri behar denari. Berehala herri kirol denboraldia prestatzen hasiko garela... eta halakoak. Gustura nago, ikastolan eta herri kirolean lanean segitzeko prest. Atzera begiratu, gauzak zenbat aldatu diren agerikoa da. Nola-koak ziren orduko Nafarroa Oinezak, eta nolakoak oraingoak. Baina orduan eta orain, gurasoak euskararekin eta ikastolekin kontzientziatuta geunden. Eta jendeak ere laguntzen zuen, bai lehenabiziko Oinez eta baita gaur egunekoan ere.

**JESUS SENAR ARISTORENA
ANDRA MARI IKASTOLAKO
IRAKASLE OHIA**

Zure bizitza, beti, Andra Mari ikastolari lotuta.

Betidanik, eta horrela jarraituko du, berdin-berdin, hil arte.

Noiz hasi zinen irakasle?

1980. urtean. Oinarrizko Hezikuntza Orokorreko (OHO) irakasle nintzen, tutorea, 3. 4. eta 5. mailatan. Beste irakasle batzuekin txandaka egiten genituen soin heziketako klaseak. Denborarekin, espezializatu eta 1995. urtetik aurrera ikastolako soin heziketako irakaslea izan nintzen. **Beste irakasgaiak irakastea –eskara, gaztelera, matematika...– faltan bota al zenuen?**

948 461 703
Kale Nagusia, 8 (Etxarri Aranatz)

@buxek_ileapaindegia
Fernando Urkia I,
Arbizu
948 461 698

Zure bertako liburu denda
fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Etxeko krocketak eta bokatak
948 460 162 - Etxarri Aranatz

KOLABORAZIOA

Eta RAP musika mota Sakanan sortu izan balitz?

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Joan den mendeko berrogeita hamar eta hirurogei urteen hamarkadetan, bost-hamar urte bitarteko haurrek, Etxarri Aranatzen gutxienez, doinu bereziarekin erabiltzen genuen hizkuntz baliabide bat, eta irudimenaren hegoei askatasun pixka bat emanez gero, huraxe beranduago RAP bezala mundu guztian ezaguna egin den musika generoa izanen genuke. Etxarri Aranatzen horrela erabiltzen genuela, nik neuk ziurta dezaket eta horrela erakutsi diet semeei eta ilobei ere, baina ziur naiz beste egitura eta edukiarekin bada ere, Sakanan bertako eskal hizkera oraindik erabiltzen duten herrietan ere horrelakoak izanen zirela.

RAP (Rithm and poetry), erritmo eta poesia hitzen akronimoa da batzuek; eta beste batzuek, aldiz, jatorri germaniarra edo suediarra (*rappa*) duen onomatopeia izanen litzateke, 'jo' adierazteko.

Wikipediaren arabera, RAPa errima, hitz erritmikoa eta jerga apoteosikoa dituen musika estiloa da, mota askotan interpretatzen dena.

RAParen osagaiek "edukia" (esaten dena), "flow" (erritmoa, errima) eta "tonua" (kadentzia) barne hartzen dituzte. RAPa, oro har, pista instrumental baten gainean interpretatzen da, nahiz eta *a capella* ere egin daitekeen. RAPak hip hop musikaren parte egiten du, baina fenomenoaren jatorria hip hop kultura baino lehenagokoa da.

Etxarri Aranatzen *a capella* egiten genuen, ez baikenuen eskura orduko hartan musika tresnarik eta urte asko izan behar zuen bertakoen memorian txertaturik geratu den eta doinu berezia zein hitz harrigarriak dituen bitxi hau, geroxeago, bere edukia azterterakoan, ikusiko dugun moduan.

Hizkera mota harrigarri, dirdiratsu eta amaiera apoteosiko edo gailur garaieneko duena dugu, orduan hauxe eta, gainera, errima, erritmo eta kadentzia edo tonu berezikoa ere bai. Hizkera mota harrigarria dela nioen, ez baita hizkuntza estandarra bertan ageri dena, ez dauka esanahi argia bere osotasunean eta ez du helburu moduan entzuleei mezuren bat ematea.

Horrelakoxea da Etxarrikoa, hasieratik bertatik egungo bertako hizkeratik, zertxobait aldenduz *in crescendo* doana eta mezurik gabeko segidan, baina bere helburua betetzeko ezin era egokiagoan, hau da, haur taldeak hurrengo denborapasaren edo jokoaren ardura nor hartuko duen erabakitzea. Gaztelaniako mailegua (*parar*; 10. adieran RAEn "ordenar, mandar, disponer", *¿quién se la para?* esaten zuten erdaldunek) erabilirik, *laparatu* esaten genion jokoaren edo denborapasaren ardura hartzeari eta, orduan, nor *laparatzen* zen jakiteko erabiltzen genuen RAPa, erritmoa eta poesia baliaturik zalantzarik gabe, RAPa ote zen egiten ari ginena jakin gabe, noski.

Beheko taulan dituzue Etxarri Aranazko bitxiaren hogeita lau erritmo kolperen arabeko itxura.

Seikoa dugu bertso kopuruaren arabera eta errima ondorengoa: AA, BB, CC. Azken honek, errimak, erakusten du ez dela besterik gabe sortutako jostagarria.

Bertsoen neurriari erreparatzen badiogu, begi kolpe batez ikus daiteke ez dela gehienetan silaba bertsoen neurriaren oinarria, bi silabakoak baitira horietako gehienak. Laugarren bertsoak emakume izenari intentsitate non daukan markatu diot eta horrela amaierako diptongoa / ia/ hobeki uler daiteke, hiru silabakoa berez, baina bi erritmo kolpekoa. Bigarren bertsoak erakusten digu aspaldikoa izan daitekeela poematxoa, ezen egun ez da erabiltzen etxarriaren saguzar (gaueko ugaztun hegalaria) izena, baizik eta *ñerexagu* (enara eta sagu); eta bertso amaierako aditza ere, soilik adin handiko etxarriarrek erabiliko lukete oraindik horrela, desio handia edo irrika adieraziz: *jaan al au* (*jaan < jaen < janen + al < aal < ahal + au < hau*; Jango ahal hau!). Hirugarren bertsoan, poemagintzan horren erabilia



den sinalefa, *-koal-*, dago, hau da, hitz baten amaierako eta hurrengoaren hasierako bokalak elkaturik diptongoa behartuta. Bosgarren bertsoan, baiezkoan eta ezezkoan, r/d txandaketa dugu jatorrikoan. Eta azkeneko bertsoaren azken aurreko erritmo kolpea luzatu egiten genuen *in crescendo*-ari, danborraren erredoblea bailitz, erpina edo gailurra markatuz.

Zirkuluan jarritako haur taldeko kide bakoitzari zegokion erritmo kolpe bakoitza, betiere haurretako batek, zeremonia maisua, ardura harturik bere eskubiko aldekotik hasteko. Sistema honek, jakina, zirkulua osatzekoan zein tokitan jarri behar zen norberak erabakita, iruzur egiteko aukera ematen zuen, kopuru zehatza baitzen eman beharreko ahots edo erritmo kolpea, hogeita lau, ez gehiago, ez gutxiago. Eta adinean gora joandakoan, ardura eramate zuena, zeremonia maisua, hasten zen RAParen bertsoak esaten kideei horiek egokitu gabe, beste zirkulukide batek gaztigatzen zion arte hasteko bere eskubikoekin. Bistan da ez zela hala ere erabat ekiditen iruzur egiteko aukera, baina beste aldetik, iruzurak ere ba zuen

alde ona, kalkulua (matematika) baliatu behar baikenuen zirkuluan zein tokitan jarriko ginen erabakitzeke.

Erritmoari dagokionez, nahiko monotonoa zela pentsa daiteke, RAParena bezalako, baina ez dugu ahaztu behar hitzak zirela berezitasuna ematen ziotena, hitzak eta danborkadaren moduko ahots kolpeak bertso zati bakoitza ahoskatzerakoan. Eta, hauei erantsita, intentsitatearen gorakada jarraia, *crescendo*, amaierako azken aurrekoak klimaxa markatzen zuela, ondorengo erritmo kolpearen, azkenaren, intentsitatea ahultzeko, eginkizunaren ardura egokitu zitzaionari begira jarritz zeremonia maisuaren behatz erakuslea.

RAP egiten dutenek amesten dutena, amaiera apoteosikoa, Sakanako haurrek ikus-entzunezkoak ez ziren garaian egunerokoan lortzen genuen, gogoko eginkizun baten, jolasaren, protokoloari hasiera dirdiratsua emanez.

RAPak bezala, beraz, orduko hartako haur sakandarrek, poesia (herrikoi tradiziozkoa gure kasuan) era melodiko monotono eta egituratu erabiltzen genuen, erritmo baten barnean sartzeko.

Eta hau hola bazan...

DUELA 25 URTE...



Egiarretan, eskola berritzen

Garai bateko eskola zena eraberritzea erabaki zuen Egiarretako Kontzejuak. Asmoa zen beheko partean elkartea sortzea eta goiko solairua kontzeju etxe bilakatzea. Lanak 1997ko udazkenean hastekoak ziren, baina atzeratu, eta 1998ko udaberrian hasi ziren. Aurrekontuak ez zuen dena egiteko ematen, eta kontzeju etxea egiten, teiltatua eta fatxadak konpontzen hasi ziren. Leiho berriak ere zabaldu zituzten. Bilkura gela, idazkaritza eta artxiborako gela bana eta komunak egitekoak ziren.

Bat	bi	iru	lau	(Bat, bi, hiru, lau)
xagu	zarrak	janal	au	(saguzarrak janen ahal hau)
Zapa	teri	koal	kate	(Zapateriko alkate)
Mária	Mária	pena	te	(Maria, Maria penate)
Ezdi	duri	badi	duri	(Ez dirudi, badirudi)
konpor	tako	ipuuuur	txuri	(konportako ipurtxuri)

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 6

LAKUNTZA Hitzaldia.

Indarkeria matxistaren aurrean, zer?
Sakanako Itaiaren hitzaldia.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen urteurrena:
33 mende herena borrokan barrena!
18:00 Haurren txokoa, plazan.
20:00 Pintxopotea.
21:30 Afari merienda eta bertso
saioa: Aroa Arizubieta, Bittor
Altube eta Gorka
Pagonabarraga.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkarteko pala partidak:
Ormazabal - Erauskin / Zabalza -
Arrosagary; Mendiburu - Marroyo /
Moreno - Aldasoro; Marroyo - Salinas
/ San Martin - Gastearena;

Goikoetxea - Zubiria / Aldaz -
Baztarrika; Urbe - Jimenez / Lohiarte
- Murugarren.
18:30ean, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Etxera

txozna.

Plazan.

20:00 Kontzentrazioa.

20:30 Pintxo potea.

21:00 Bertso saioa: Ion Maia eta
Unai Iturriaga.

LARUNBATA 7

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen urteurrena:
33 mende herena borrokan barrena!
11:00 Gazterchef txapelketa
(kalderete txapelketa),
plazan.
15:00 Bazkaria.
17:30 Jokoak.
19:00 Elektrotxufila
elektrotxaranga.
21:30 Magrak, gaztetxean.
22:00 DJak: 2 hotz skr,
gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Etxera txozna.

Irekiera.

12:00etan, plazan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Barbie gaurkotasunezko filmaren
emanaldia

Igandea 8: 19:30
Astelehena 9: 19:00

Golpe de fuerte gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 12: 19:00

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Axio Juan Ignazio Erdozia Larraza. 44
urte poliziak erail zuenetik. Agur eta
ohore eusko gudaria! ekitaldia,
Jardun-ek deituta.
13:00etan, plazan.

OLAZTI Rallya.

XLI. Urbasako Igoera, Sakana
Motorsportek antolatuta.
13:00 Entrenamendu ofizialen
hasiera. Ondoren, lehenengo
Manga Ofiziala eta bigarren Manga
Ofiziala.

ALTSASU Gazte agenda.

Intxostiapuntaren Irekiera festa:
Bubble Balls eta afaria (3 euro).
18:00etatik 01:00etara,



UTZITAKOIA

ALTSASU Zelulatik pazientera. 10 urte elkarrekin lanean NavarraBiomed-en erakusketa.

Urriaren 9ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara,
ikuskizuna dagoen larunbatetan 18:30etik 20:00etara eta igandetan
18:30etik 20:00etara.

Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI Hitzaldia.

Indarkeria matxistaren aurrean, zer?
Sakanako Itaiaren hitzaldia.
18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkarteko pala partidak:
Goñi - Beraza / Garaño - Sanz;
Campos - Amado / Lacunza - Arraras;
Larraza - Lazkoz / Beltza -
Gaintzarain.
18:30ean, frontoian.

ALTSASU Antzerkia.

Nunca he estado en Dublin
antzezlanaren emanaldia.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Oltza Zendeako antzerki tailerraren
Terziopena antzezlanaren
emanaldia, Antzerki Tailerren
Topaketen barruan.
20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 8

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeare
irteera: Sarabe - Intxusburu.
08:00etan, egoitzatik.

ETXARRI ARANATZ Etxera

txozna.

Plazan.

19:00 Txozna irekiera.

19:30 Skabidean taldearen
kontzertua.

OSTEGUNA 12

UHARTE ARAKIL Azoka.

Elkartasun azoka, Sakanako
Mankomunitateko Anitzartean
kulturartekotasun zerbitzuak,
Sakana Harrera Haranak eta
San Migel ikastetxeak
antolatuta.

10:00etatik 14:00etara, plazan.

OSTIRALA 13

IRURTZUN Ikastaroa.

Hipopresibo ikastaroa: ariketa
abdominal hipopresiboek zoru
pelbikoa eta sabelaren giharra
indartzea dute helburu,
arnasa-apnearen bitartez.
Adin guztietarako
emakumeendako bideratuta.
Sakanako Mankomunitateak
Kirol zerbitzuak eta Nafarroako
Kirolaren institutuak antolatuta.
17:30etik 19:30era,
kiroldegian.

sarea
Aralar eta Karrope irratiko esatariekin

Astelehenetik
ostiralera
11:05ean
Beleixe irratiari

bla
!?

beleixe 107.3 FM
Online entzuteko:
www.guaixe.eus

Erviti aluminio PVC

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

Akaborra industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Arakilgo Udalak dinamizatzaile kultural lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zabaldu du: Hautagaien zerrenda osatu nahi dute, lanaldi erdian, B mailako soldatarekin. Derrigorrezkoa C1 maila, gidabaimena eta autoa izatea. Informazio gehiago www.arakil.eus web orrian.

OHARRAK

Lakuntzako Udalaren euskara ikasleendako dirulaguntza: Aurreko

ikasturtean euskara ikasi dutenendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. 16 urtetik gorako lakuntzarrei zuzendua. Interesa duenak www.lakuntza.eus web orrian du aurkeztu beharreko dokumentazioa, urriaren 15a baino lehen.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz

lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30etan, 11:30etan, 13:30etan, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

JAIOTZAK

- **Adei Mendinueta Agirre**, irailaren 25ean Arbizun
- **Aiur Herbosa Orla**, irailaren 26an Dorraon
- **Hegoi Gaulabur Lopez de Sabando**, irailaren 30ean Dorraon

EZKONTZAK

- **Cristina Garcia Medina eta Mikel Palacios Andueza**, irailaren 23an Lakuntzan
- **Imanol Arregi Sarasa eta Patricia Gutierrez Martinez**, urriaren 2an Irurtzunen


HERIOTZAK

- **Presentacion Urrestarazu Fernandez**, irailaren 29an Bakaikun
- **Maria Angeles Kintana Bengoetxea**, urriaren 1ean Olaztin


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN
JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN
JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 6




Larunbata, 7



Igandea, 8



Astelehena, 9



ESKELA

Presentacion
Urrestarazu
Fernandez

Bihotz bihotzez

Kintana familia

Bakaiku, 2023ko irailaren 29an



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75

iragarki@guaixe.euswww.guaixe.eus/iragarkiak

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiaik

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

IRAGARKI LABURRAK

ZOZKETAK

ZORION AGURRAK

DUELA 25 URTE

HIZKETAN

KOMUNITATEA

GIDA KOMERTZIALA

NAFARROA OINEZ

ZUZENEKO

KONTAKIZUNA

IRITZI ARTIKULUAK

ARGAZKI LEHIAKETAK

AGENDA

www.guaixe.eus

Preferentea eta Erregionala Kopan murgilduko da

FUTBOLA Ligak etenaldia du, bi asteburutan jarraian Kopako partidak jokatuko baitira

Gizonezkoen Preferente eta Erregional mailan ligak etenaldia du bi asteburu jarraian, Nafarroako Futbol Federazioko Kopako bi jardunaldi jokatuko direlako.

Altsasu Preferenten bigarren

Preferente mailan, ligako bosgarren jardunaldian Altsasuk Soto-Ibarbasoren kontra jokatuko zuen, eta Sanduzelaitik hiru puntu ekarri zituen, 1 eta 2 irabazita. Bestalde, asteazkenean Ziraukiren kontra festetan atzeratutako partida jokatuko zuen Altsasuk, eta 1 eta 3 irabazi zuen, Irigoien, Calvo eta Floresen golei esker. Saillapenean Valle de Egües B da liderra (11 puntu), eta Altsasu bigarren postura igo da, puntu berberekin (11 puntu). Gaur, ostirala, Kopako partida jokatuko du Altsasuk Universidad de Navarra B-ren kontra, 16:00etan, Iruñean.

Lagun Artearen garaipena

Erregional mailako hirugarren jardunaldian Lagun Arteak Liceo Monjardini 2 eta 1 irabazi zion. Liceo izan zen partida hasi eta 2. minutuan aurreratu zena, baina Iker Anduezak, lehenengo, eta Davilak, azken minutuan sartutako golekin garaipena etxean geratu zen. Etxarri Aranatzek atsedean jardunaldia zuen. Mutilvera C da Erregional mailako liderra (9 puntu). Lagun Artea hirugarren postura igo da (6 puntu). Etxarri Aranatz seigarren postuan dago (4 puntu). Asteburuan, Kopan atsedean jardunaldia dagokio Etxarri Aranatz.

Altsasuren porrot mingarria

Emakumezkoen Preferente mailan Gazte Berriak liderrak 9 eta 1 irabazi zion Altsasuri. Larunbatean Lourdesen kontra jokatuko du saillapenean azkena den Altsasuk, 17:00etan, Tuterako Clara Campoamor zelaian.



Urbasak beti erakartzen du, baina larunbaterako ia udako eguraldia iragarri dute eta oraindik jende gehiago espero da.

Urbasako Igoeran pilotuek asko dute jokoan

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsporteko Andoni Blas eta Iker Palacios daude monoplasen Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketako buruan, eta Urbasako puntuak lortzeko lehia estua izango da. Sakanako motor festa handia ikusgarria izango da

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Larunbatean, urriaren 7an, 13:00etatik aurrera jokatuko da Sakanako motor festa handiena dena: Urbasako Igoera. Aurten 41. edizioa izango du, eta eguraldia lagun, jendetza espero da, milaka pertsona. "Egun polita izango da, eta ikusleei ongi pasatzeko deia egiten diegu, ohiko oharpenak eginez: Urbasa Andia natur parkea denez, guztia bildu eta garbi-garbi utzi dezatela, eta segurtasuna zaintze aldera soilik zehaztutako eremuetan jar daitezela" dio Sakana Motorsport eskuderiako Haizea Galarzak.

GUAIXEko erredakzioa itera-koan antolakuntzak oraindik ez zuen pilotuen zerrenda argita-

ratu. Izena ematean 100 pilotuen muga aspalditik gauditzen, eta hogeitau baina gehiago zeuden erreserban. Azken aldaketak lotzen zebiltzan, azken orduan parte hartu ezin duten pilotuen tokiak erreserbakoei ematen. Hori egin behar izan dute Pantxo Egozkuerekin.

Egozkeri aitortza

Izan ere, pilotu nafarrak istripu gogorra izan zuen asteartean, bere monoplasarekin Beraiango industri gunean entrenatzen ari zela. Zainketa Intentsiboetako Unitatean jarraitzen du, larri baina egonkor. Pantxo Egozkue pilotu mitikoa, beste askotan bezala, larunbatean Urbasako

Igoeran aritzekoa zen. "Berari animoak eman eta nolabaiteko aitortza egiteko, Urbasako Igoerako lehen zenbakia edo 1 dortsala hutsik uztea erabaki dugu. Onena opa diogu" azaldu du Sakana Motorsporteko Haizea Galarzak.

Ordutegia

Bihar ikuskizun handia espero da Urbasan. Zaleek auto ikusgarriak gertutik ikusteko aukera izango dute, bai asistentzia gunean, Olaztiko kiroldegitik irteera punturaino dagoen eremuan, eta baita lasterketan ere. Errepidea gaur, ostirala itxiko da, 19:00etan. Bihar, larunbata, 12:00etan autoak ikusgai egongo

dira Clinker aurreko pistan, parke itxian. 13:00etan entrenamendua abiatuko da, eta jarraian probako bi mangak.

Urbasako Igoera 5,9 km-ko proba da. Lehen zatia oso azkarra da, eta bigarrena, bihurtuz jositakoa, oso teknikoa. Joseba Iraolarena da errekorra, 2022koa: 2:57.862 (NOVA NP 01).

Blas vs Palacios

Azken orduko aldatetarik ez badago, zortzi pilotu sakandar lehiatuko dira: Andoni Blas, Iker Palacios, Delfin Goikoetxea, Ander Gurmino, Arkaitz Irigoien, Asier Juanez, Eneriz Besga, Iñaki Verdud eta Mikel Mendinueta. Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarrak ez du parte hartuko, azken hamalau edizioetan aritu eta gero.

Andoni Blas eta Iker Palacios Sakana Motorsportekoak dira, Lakuntzako bizilagunak, eta Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketan, monoplasetan, arerio latzak. Txapelketako saillapenean buruan daude biak. Blasek 237 puntu ditu, Etxalarren, Ioarren, Izpegin eta Ibarদিনen lortutakoak, eta Iker Palaciosen 103 puntu, Izpegin eta Ibarদিনen lortutakoak. Hortaz, Urbasan jokoan dauden puntuak ezinbestekoak dira biendako, Nafarroako txapelkun izan nahi badute behintzat. "Monoplazen Nafarroako Igoeren Txapelketan lehen hiru postutan Sakana Motorsporteko hiru pilotu egotea ez da inoiz gertatu. Blasen eta Palaciosen atzetik, Garikoitz Flores da hirugarrena, eta oso pozik gaude" azaldu du Sakana Motorsporteko Iranzu Razkinek. Flores ez da Urbasan lehiatuko. Nafarroako Igoeren Txapelketan beste kategoriako autoek ere asko dute jokoan, baita Formula Librekoek ere.

Mazkianan eta Berastegi, Ezkaraiko podiumaren gorenean

Igandean Ezkaraiko Igoera jokatuko zen eta sakandarrak bikain aritu ziren. Sakana Motorsport eskuderiako Mikel Mazkianan altsasuarra saillapen orokorrean edo scratchean seigarren izan zen, car-kros modalitatean txapelkun (3:20.837), eta Josu Berastegi urdiaindarrak saillapen orokorrean zortzigarren eta car-krosean hirugarren (3:28.894).



Mazkianan eta Berastegi, podiumean.



Mikel Mazkiananen kar-krosa. @G000RKS



Eki Imazek Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketan aurrea hartu zuen hasieratik.



Alberto Arrizabalaga, maldan gora.



Ainhoa Markinez olaztiarraren helmugaratzea.



Sartu guztiek bertako produktuen zare ederrak jaso zituzten.

Urbasa Andia

MENDI LASTERKETAK Beroarekin eta eguzkiak gogor jotzen zuela jolasa Etxarri Aranazko 48. Mendira Joan Etorria. Olaztiko probak ibilbidetara joan zen urteko garaipena berritu zuten. Etxarri Aranatzek, aldiz, t

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Sakana lainoan zegoen 15. Olatzagutia Urbasa mendi lasterketa abiatu zenean, baina Olaztiko portua gaindituta, korrikalariak lainoa atzean utzi, eta eguzkiak gogor jotzen zuten Urbasa-Andian. Beroa eta hezetasuna izan ziren korrikalarien sufrikario latzena, jaitsieran bereziki. 115 korrikalari hartu zuten irteera, tartean juniorrek, aurten lehen aldiz, eta 98 korrikalari sailkatu ziren.

Sutegik antolatutako mendi lasterketak aurten ibilbidea mustu zuen. Aurreko ibilbidea Urbasa Andia Natur Parkeko babes bereziko gunean sartzen zelako (Tontorraundi, Pagadi sorgindua... guneko tontorreria guztia, finean), 14 urtez jarraian egindako ibilbidea aurten ezingo zutela errepikatu azaldu zieten Ingurumen Departamentutik. Horrela, 17,2 km eta 920 m desnibel + duen ibilbidea prestatu zuten, besteak beste Gainsol, Txondorren bidea, Zelai Haundi, Larrakarte eta Morterutxo hartzen zituena. "Galdegiezu korrikalarietara, ea zer iruditzen zaien ibilbide berria". Hori zen Sutegiko Fermin Zornozaren kezka nagusia, beste hamaika lanen artean.

Eki Imaz, hasieratik aurrean

Joan zen urteko irabazleak, Eki Imazek, lasterketa hasieratik hartu zuen aurrea. Lehen tartean Carlos Jimenez araiarra izan zuen bidaide, "baina jaitsieran ihes egitea lortu dut eta bakarrik iritsi naiz helmugara" azaldu zuen aita olaztiarra duen 23 urteko agur indarrak. Aurten ikusle gehiago bildu ziren Urbasa mendian, eta baita helmugan ere, eta txalo zaparrada artean iritsi zen Imaz (1:29:14). "Hasiara batean orain arteko ibilbidea gustukoagoa nuen, baina berria nahiko antzekoa da, zati asko berberak dira. Eta ikusleendako hobe da, jendeak lasterketa

mendian jarraitzea errazago duelako ibilbide berriarekin. Beraz, ongi. Oso gustura ibili naiz" aitortu zuen. 31 segundo atera zizkion Ibai Primiciari, eta Carlos Jimenez hirugarren sailkatu zen (1:30:42). Helmugan laugarren sailkatutako Asier Palacios altsasuarrari lehen saskandarraren saria eman zioten (1:32:50), eta lehen beterranoa Sergio Serrano izan zen, helmugan bosgarren (1:34:22).

Izaskun Beunzarendako, hobeki

Izaskun Beunza oso pozik zegoen bigarren aldiz etxeko lasterketa irabazi izanagatik (1:49:00). 2 minutu eta 23 segundo atera zizkion Andrea Garayri, eta Erika Alvarezek osatu zuen podiuma (1:52:39). Lehen beterranoa emakumezkoetan laugarren iritsitako Gema Olave izan zen (2:00:19).

Beunzak aitortu zuen ibilbide aldaketa hobeki datorkiola. "Aurrekoak zati teknikoagoak zituen; jaitsierak oso teknikoak ziren, Tontorraundikoa esaterako, eta ohituta ez nagoenez, tarte horietan gehiago kostatzen zitzaidan: beldurrez ibiltzen nintzen. Ibilbide berria oso polita iruditu zait, aurrekoa baino azkarragoa, eta korrika egiteko hobe. Helburua zen ahalik eta azkarren gora iristea, korrika egiteko erosoagoak diren tarte horietan hankak ongi euki eta abantaila hartzeko. Eta nahiko ongi atera zait" azaldu zuen.

Ikusle gehiago

Ibilbidean "jende pila bat" zegoela gaineratu zuen, "baita helmugan ere". "Hau da nire garaipenik politena, etxekoa. Herrian sartzean eta jendea txaloka ikustean hunkitu egiten naiz". Hezetasuna nabarmenduz. "Normalean ez naiz hornidura guzietan gelditzen, baina gaur guztietan gelditu naiz ura edatera". Proba nagusia jokatzeko bitartean, 38 neska-mutikok txikien lasterketan parte hartu zuten.



Haurrendako lasterketeko bat.

Olazti

15. Olatzagutia-Urbasa:

Gizonak

1. Eki Imaz	1:29:14
4. Asier Palacios	1:32:50
6. Gorka Acebes	1:34:33
30. Patxi Cano	1:52:23
32. Iraitz Berastegi	1:52:58
37. Fran Araña	1:54:12
40. Unai Razkin	1:54:34
41. Kepa Gordo	1:54:37
42. Santi Galarza	1:54:54
43. Juan Garziandia	1:54:54
44. Iñaki Garcia	1:55:37
45. Egoitz Aldaz	1:55:51
55. Asier Amiama	1:59:11
58. Santi Agirre	2:00:50
69. Ruben Izko	2:04:57
70. Iurgi Flores	2:04:57
71. Asier Leiza	2:05:33
72. Mikel Galarza	2:06:43
74. Igor Maiza	2:07:32
75. I. L. de Goikoetxea	2:08:26
78. Iker Zeberio	2:11:10
80. Mikel Solas	2:11:41
84. Andoni Barrera	2:15:11
85. Alberto Arrizabalaga	2:15:31
88. Asier Iparragirre	2:23:21
90. Eneiz Besga	2:30:32
91. Raul Mendoza	2:30:35
92. Juanjo Otsoa	2:30:36
93. Asier Agirre	2:30:38
95. Iñaki Ganuza	2:36:25

Emakumeak

19. Izaskun Beunza	1:49:00
65. Ainhoa Markinez	2:02:17
86. Marta Irañeta	2:15:51

ak utzitakoa

katu ziren larunbateko 15. Olatzagutia-Urbasa eta igandeko e berria mustu zuen eta Eki Imaz eta Izaskun Beunza olaztiarrek txapeldun berriak izan zituen: Jesus Mari Alegria eta Inma Pereiro

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udaberri elkarrekin antolatutako Mendira Joan Etorriak 48. edizioa zuen aurtengoa. Aspaldiko apustuetan oinarritutako lasterketa bere horretan mantentzen da. Etxarri Aranazko plazatik abiatuta, Urbasa Andiako Bargan gora egin eta Hartzabalera heltzea da erronka, Maiatza jartzen den tokira. Han buelta hartu, eta Etxarriko plazara iritsi behar dira korrikalariak (10 km, 572 m desnibel +). Feriak ospatzen direnez, giro ezin hobea izaten da plazan, eta korrikalariak egiten zaien harre-ra ikusgarria izaten da. Baita aurtengoa ere.

Beroa

Bezperan Olaztin gertatu moduan, bero latza jasan behar izan zuten korrikalariak. Beroa are nabarmenagoa zen Etxarri Aranatzen, proba ordu bat beranduago hasi zelako, 11:00etan. Gainera, "proba laburra baina oso esplosiboa" da ferietakoa, korrikalariak esanetan, eta asko lehertuta iritsi ziren helmugara.

Errekorretatik urrun

Aurten Mendira Joan Etorriak txapeldun berriak izan zituen, Arronizko Jesus Mari Alegria (45:32), eta Castañedon (Kantabria) bizi den Inma Pereiro bizkaitarra (1:01:36). Alegria 2001. urtean Juan Mari Garinek ezarritako errekorretik (42:50) nahiko urrun geratu zen. Emakumezkoetan azken bi urteetako txapeldun Maria Ordoñezek falta izugarri nabaritu zen Etxarri Aranatzen, Ordoñezek azken bi urteetan Joan Etorriko errekorra apurtu baitzuen, marka berria ezarriz (51:28). Pereirok Ordoñezek baino 10 minutu gehiago behar izan zituen proba osatzeko, atera kontuak. Maria Ordoñezek berriki Uharte Arakil Beriain Km Bertikala irabazi zuen, baina ezin izan zuen Etxarri Aranatzen parte hartu.

Jesus Mari Alegriaren atzetik, minutu batera, Ander Amezketa murietarra sartu zen (46:52). Iñigo Lasarte lekunberriarrak osatu zuen podiuma (47:07). Lehen sakandarra Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, sailkapen absolutuan bosgarren (49:18). Gertu Ekhi Congil etxarriarra ibili zen, sailkapen absolutuan zazpigarren (49:46). Lehen beterranoa lasterketan laugarren sailkatu zen Mikel Beunza izan zen (47:39). Alkozko korrikalariak duela bi aste Uharte Arakil Beriain Km Bertikala irabazi zuen.

Emakumezkoetan, Inma Pereiro beterranoaren atzetik Marina Zabala gazte lakuntzarra sartu zen (1:01:51), 15 segundora. Bera izan zen probako lehen sakandarra. Hirugarren emakumea Eneritz Karasatorre sartu zen (1:03:58), lehen etxarriarra.

24 etxarriar

Joan Etorria Etxarri Aranazko ferietan jokatzeko da, parranda eta jai giroa tarteko dela, baina hala ere harritzekoa da zenbat etxarriarrek parte hartzen duten bertan. Aurten 24 sailkatu ziren. Etxarriarrendako herriko proba erronka da, eta askok parrandaren gaineratik jartzen dute. Aurreko edizioetan bezala, Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria zen Udaberri antolatutako proba.

Sari ematea plazan izan zen. Irabazleek txapelak jaso zituzten, eta gainontzekoendako ere sariak eta oroigarriak izan ziren.

Estarriaga ikusgarri Donostian

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria jokatzeko bitartean, 1.506 korrikalariak lortu zuten Zurich Donostiako Maratoi Erdia (21 km) despeditzea. Irabazleak Abderrahmane Aferdi (1:02:56) eta Irene Pelayo (1:14:21) izan ziren. Asier Estarriaga etxarriarra ikusgarri aritu zen eta Top 20an sailkatu zen, hemezortzigarren (1:14:11).

Etxarri Aranatz

48. Mendira Joan Etorria:

Gizonak

1. Jesus Mari Alegria	45:32
5. Aritz Munarriz	49:18
7. Ekhi Congil	49:46
8. Juan Larrea	50:33
17. Beñat Anda	55:24
21. Alber Razkin	56:38
23. Andoni Goikoetxea	56:47
27. Joseba Galarza	57:59
30. J. Daniel Lakuntza	58:42
32. Carlos Mañeru	59:00
36. Jon Mendia	1:00:31
38. Kepa Gordo	1:00:44
39. Iosu Jaka	1:01:01
40. Unai Kintana	1:01:01
41. Oihan Barandalla	1:01:05
42. Ibon Ubeda	1:01:20
47. Jon Zabaleta	1:01:45
48. Iñaki Agirre	1:01:46
49. Izai Mauleon	1:01:46
56. Jon Igoa	1:03:53
61. J. A. Salgado	1:06:52
65. Marcos J. Rocha	1:08:43
67. Aimar Araña	1:08:52
68. Rafa Lakuntza	1:09:25
70. Araitz Jaka	1:09:57
77. Kimetz Arregi	1:20:10
80. Antton Igoa	1:21:16

Emakumeak

44. Inma Pereiro	1:01:36
50. Marina Zabala	1:01:51
57. Eneritz Karasatorre	1:03:58
66. Saioa Araña	1:08:51
72. Erkuden S. Martin	1:11:44
73. Nerea Martinez	1:13:26
75. Sarabe Arakama	1:13:50
78. Eider Jaka	1:20:23
82. Inge Zelaia	1:21:36
84. Madi Lizarraga	1:32:07



Saioa eta Aimar Araña anai-arrebek elkarrekin osatu zuten proba.



Nerea Martinez eta Mikel Mendizabal ongi lagunduta iritsi ziren helmugara.



Ekhi Congil zazpigarren sailkatu zen.



Salgado bezperan Olatzagutia-Urbasako itxieran aritu zen.



Saritutakoek txapelak, sariak eta bildutakoen txaloak jaso zituzten.



Emakumea, padelean. UTZITAKOA

Hipopresiboak, desfibriladorea, eta padel topaketa

KIROLDEGIA Sakanako Mank-ek bi ikastaro eta emakumeendako padel ate irekiak antolatu ditu

Sakanako Mankomunitateak kirolari lotutako ikastaro eta jardunaldien eskaintza zabaldu du. Hasteko, urriaren 13an, Irurtzunen, eta urriaren 27an, Lakuntzan, hipopresibo ikastaroak eskainiko dira, 17:30etatik 19:30era. "Ariketa abdominal hipopresiboek zoru pelbikoa eta sabelaren giharra indartzea dute helburu. Arnasa-apnearen bitartez lantzen den teknika da, eta adin guztietako emakumeendako oso komenigarria". Bestalde, urriaren 19an desfibriladore ikastaroa eskainiko da Altsasuko Gure Etxean, 16:30etik 19:30era, doan. Aurretik online saio bat burutu beharko da. Aipatu bi ikastaroetan izena ematea urriaren 11ra arte zabalik dago (*kirolak@sakana-mank.eus*).

Azkenik, berrikuntza batekin dator Sakanako Mankomunitatea. Azaroaren 5ean jatorri anitzeko emakumeei zuzendutako Padel Ate Irekiak antolatu ditu Arbizuko Utzubar industri gunean dagoen Sakana Padel egoitzan, 10:30etik 13:00etara. Izena ematea zabalik dago urriaren 25era arte. Dohakoa da. Helburua jatorri anitzeko emakumeen artean kirola eta harremanak bulkatzea da. Behar duenak taxi zerbitzua izango du, eta haurrendako zain-tza zerbitzua egongo da.

"Konfiantzarekin iritsi naiz Lau eta Erdira"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Bilboko Aste Nagusia, Sanmateoak eta CaixaBank Mastersa irabazita heldu da kaiolara arbizuarra. Bera eta Altuna dira faborito nagusiak, hiruna txapela baitituzte

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Gaur, ostirala, 2023ko Lau eta Erdiko Txapelketa hasiko da, Agoitzen, eta azaroaren 19an despidituko da, Bilbon. Asteburu honetan final zortzirenak jokatuko dira, eta garaipena lortzen duten lau pilotariek lau zerrendaburuak izango dituzte zain -Ezkurdia, Altuna, Etxeberria eta Elordi-, final laurdene-tako ligaxkari ekiteko.

Joseba Ezkurdia eta Jokin Altuna dira faborito nagusiak. Kaiolako azken sei txapelak euren artean banatu dituzte; hiruna bakoitzak. Ezkurdiak 2022ko txapela defendatzen du, final gogoangarrian Altunari 22 eta 21 irabazitakoa, eta lortutako koroa mantendu nahi du. Arbizuarra Lau eta Erdira "gogotsu" iritsi da, uda bikain bukatu baitu. Igandean Urrutikoetxeak eta Salaberriak jokatuko duten kanporaketako irabazlea izango da bere lehen aurkaria.

Igandean CaixaBank Masterseko finalean ikusgarri aritu zinen Jon Mariezkurrenarekin batera. Jokin Altuna eta Ander Imaz jota utzi zenituzten. Euren 6 tantoak zuen akatsak izan ziren, gainera. Altunak ezin izan zuen tanto bat ere egin. Egia esan, gutxitan halakorik. Finalean hasieratik ongi hasi ginen. Jonek ikaragarri jokatuko



Ezkurdia eta Mariezkurrena, igandean Mastersa irabazi berrikan.

"UDA HORRELA BUKATZEA EDERRA IZAN DA; LAU ETA ERDIRAKO GOGOTSU NAGO, ILUSIOZ"

zuen, eta ni ere erasokor ibili nintzen. Beraien 6 tantoak gure akatsak izan ziren, baina huts egindako tanto horiek kemenez galdu genituen. Igandean udako torneonetako partidariak hobere-takoa egin nuen, eta pozik nago.

Zuen estrategia, Altuna jokoz kanpo utzi eta Imaz kargatzearena, bikain atera zen. Imazek nahikoa lan izan zuen erori zitzaion erauntsiari aurre egiten, baina, azkenean, ezinean ibili zen.

Aukera gutxi dituzunean asmatu beharra duzu, eta halakoetan ez da erraza izaten. Jaun eta jabe izan ginen, Jonek izugarri jo zuen eta horren kontra ezer egitea zaila da. Ongi aritu ginen, gustura.

Mastersaren formatua, ostiralean finalerdiak jokatzea eta igandean finala, zer iruditzen zaizu?

Azkenean denendako berdina da. Partida bat edo bestea gogor-rago ateratzea gerta daiteke, baina niri formatua gustatzen zait. Joan zen urtean eta aurten ere giro ederra egon zen Nafarroa Arenan, eta horrek ere asko balio du.

Uda, agian, ez zen oso ongi hasi, baina goitik bukatu duzu, Zabaletarekin Bilboko Aste Nagusian gailenduz, Rezustarekin Sanmateotako Torneoa lortuz eta Mariezkurrenarekin Mastersa irabaziz. Lau eta Erdia ongi hasteko, ezin hobeki.

Udak denetatik izan du, partida onak eta txarrak. Sanferminetan eta Gasteizen pena, Zabaletarekin ezin genuelako finalerdietatik pasatzerik izan, baina partidaz partida hobeki sentitzen hasi, eta aipatutako garaipenak iritsi ziren. Uda horrela bukatzeagatik pozik nago, eta torneonetan egindako lan onari esker motibatuta, gogotsu eta ilusionatuta iritsi naiz Lau eta Erdira. Orain helburua kaiola ongi prestatzea da. **Bilbon eta Logroñon Elordiren partez sartu zinen torneotara, haren ordeko. Eta begira.**

Batzuetan hala suertatzen dira gauzak. Beti prest egon beharra dago, enpresak deitzen dizunean dena emateko.

Zer moduz doa Lau eta Erdiko prestatuntza?

Entrenamenduetan ongi ari naiz, eta astetik atera sentsazioak ere hobetzen doaz. Ea ongi iristen naizen, txapela lortzeko borrokan sartu eta dena ematen dudana. Abuztuaren bukaeran hasi nintzen kaiolarako prestatzen eta, ondorioz, tarte honetan jokatu ditudan partida batzuk gainkargarekin jokatu ditut, entrenamendu gogorrak egin eta gero. Baina sentsazioak onak dira, eta hori oso garrantzitsua da.

Erdigunea, guztion bilgune

MENDIA San Donatotik gertu dagoen Euskal Herriko Erdigunean 150 mendizale baino gehiago bildu ziren igandean, probintzia guztietatik etorrira, lurraldetasuna aldarrikatzeko. 2024an Federación Vasco Navarra de Alpinismo sortu zela 100 urte beteko direla gogoan, antolatutako ekitaldietan parte hartzea deitu zuten.



UTZITAKOA

Sakanako artea Hego Korean

Egunotan Itziar Nazabal Regueira artista altsasuarra Goejeko Haegeumgang museoak antolatzen duen 'Life is Art' nazioarteko arte erakusketan parte hartzen ari da. Zenbait artista gonbidaturen lanak eramateko aukera izan du, tartean sakandarrenak

E. R. B. ALTSASU

Itziar Nazabal Regueira altsasuarra une honetan Hego Korean dago IX Goejeko Nazioarteko Arte Jaialdian parte hartzen. Altsasuarra artista gonbidatu ez ezik, arte festibaleko epaimahaikide izateko "ohorea" izan du aurten, eta artistak gonbidatu ahal izan ditu. Haegeumgang Theme Museumek antolatzen duen jaialdia Hego Koreako arte topaketa garrantzitsuenetakoa da, eta bertan 50 herrialde baino gehiagoko 347 artistek parte hartu dute, tartean Nazabalek aukeratutakoak. Atzo, urriak 5, artista altsasuarrak performancea egin zuen arte festibalaren mustutzean.

Goejeko Haegeumgang "museo pribatu bat da zonalde horretan artea zabaltzeko helburua duena. Beraien filosofia artea positibotasunetik eta alaitasunez erakustea da. Itxaropen mezua helarazi". Besteak beste, filosofia hori *Life is Art (Bizitza artea da)* jaialdian gauzatzen dute, eta aurten bederatzigarren edizioa egiten ari dira. Nazabalek festibalean parte hartzen duen bigarren aldia izan da, "aurretik artista gisa parte hartu dut kurator batek, arte bilatzaile batek, gonbidatu ninduelako". Aurtengo edizioan Nazabal ere nazioarteko epaimahaikide da; hemeretzi herrialde-tako kideek osatzen dute epaimahaia.

Gloria Grau artistak gonbidatu zuen Nazabal Goejeko jaialdian epaimahaikide izatera. "Zeregin eta lanen artean festibalean parte hartzeko eta museoan haien obrak erakusteko ezagutzen eta baloratzen ditudan artistak zuzenean gonbidatzeko aukera izan dut, aurre hautaketatik pasa gabe".

Guztira, Nazabalen "taldea" hamasei artistak osatzen dute, hamabost gonbidatu, eta artista bera. Artista gonbidatuen artean zenbait sakandar daude: Elena Vera arte digitala egiten duen altsasuarra; Jule Costa margolari ziordiarra, eta Manola Arregi margolari altsasuarra. Sakandarrak ez ezik, Nazabalen taldean sei euskaldun, kataluniar bat, hiru tunisiar eta bi marokoar daude: Aitor Renteria, Ana Undurraga, Conchi Ororbia, Iñaki Villanueva, Paola de Miguel, Patxi Aldunate, Teresa Jorda Vito, Selima Tria, Najet Gherissi, Ghassen Gherissi, Mahacine Al Ahrach eta Mohamed Chuilaj. Pintura, bidegintza edo argazkilaritza diziplinak lantzen dituzte.

Jaialdia

Urriaren 3an hasi zen Goejeko arte jaialdia eta urriaren 10era arte iraunen du. Festibalak iraun bitartean mundu osoko hirurehun artista baino gehiagoren lanak erakusten dira Haegeumgang museoan. "Honek artiston lanei ikusgarritasuna eta publizitatea ematen die, baita museoan egin daitezkeen beste erakusketetan parte hartzeko aukera zabaltzen zaigu ere". Arte jaialdiaren bederatzigarren edizioa da, eta orain arte ospatutako handiena dela uste du artistak. "Isla handia izaten ari da". Haegeumgang museoan erakusketa ez ezik,

ITZIAR NAZABAL HEGO KOREAKO IX. GOEJEKO NAZIOARTEKO ARTE JAIALDIKO EPAIMAHAIKIDEA DA

urriaren 1etik azaroaren 25era Hego Koreako lau museotan egiten ari dira jaialdiarekin zerikusia duten erakusketak. Tartean ere festibalaren barruan zeremoniak, sari banaketak eta aurkezpenak daude.

Atzo, urriak 5, Nazabalek bere performancea egin zuen festibalaren mustutzean. Ekimen honetarako propio sortutako performance dela azaldu du artistak, "baina beti bezala nire barrenak eta sormen prozesua erakusten du, nire pasioa eta esentzia erakutsiz". Performanceak Nazabalen sortzeko modua dira, ez zen "bilatutako" zerbait izan, baizik eta bere sormen prozesutik sortutako zerbait.

Life is Art jaialdiko nazioarteko epaimahaikide gisa, Nazabalek ere bere artista gonbidatuen artea Artista Bereziaren Saria emateko aukera izan du, eta berak Teresa Jorda Vitori eman dio. "Ez bakarrik bere profesionaltasun eta kalitate artistikoagatik, hori nire artista gonbidatu guztiek dutelako, baizik eta bizitzaz eta arteaz hitz egiten dugunean, bera *Life is Art* horren adibide delako. Pasioz beteriko emakume artista bat da, borrokalaria, eta akuarelista garaikidearen munduan ibilbide handi bat duena". Nazabalek Gloria Grau Ruiz arte zuzendariari eta Cheon Eob YU jaialdiko presidenteari eskerrak eman nahi izan dizkie, "sari hau banatzeko aukera emateagatik. Pribilegio, erantzunkizun eta ohore handia da".

Nazabal Hego Koreako esperientzia Ghassen Gherissi argazkilariarekin, taldeko kidearekin eta senarrarekin bizitzen ari da, eta bere sare sozialen bidez Asiako herrialdean bizitzen ari dena kontaktzen ari da ere.



Itziar Nazabal Regueira artista altsasuarra epaimahai ziurtagiriarekin. UTZITAKOA



Hego Koreako Goejeko Haegeumgang Museoa. UTZITAKOA



'Life is Art' jaialdiaren sarrerako kartela. UTZITAKOA

Granizok eta Alegrek Iruritan hasiko dute txapelketa

Bihar, urriak 7, larunbata, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo saioa izanen da

ALTSASU

Iruritan Gizarte Bilgunean jokatuko da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalaurdena. Bihar, urriak 7a, larunbata, 17:30ean hasiko da saioa, eta sarrerak *bertsolarrek.eus* atarian salgai daude eta egunean bertan ere salduko dira. Sei bertsolari izanen dira oholtza gainean, tartean Idoia Granizo Uribarrena eta Ekain Alegre Gil altsasuarrak.

Maialen Belarrak aurkeztuko du Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo saioa eta

Saioa Alkiza Gualarra (2022ko txapelduna), Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Uribarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien bertsolariak ariko dira. Saioko irabazleak zuzenean Altsasun azaroaren 4an jokatuko den finalurrekoan egoteko txartela lortuko du. Beste bertsolariek, finalurdenen fase osoa bukatu arte itxaron beharko dute sailkatzerik duten jakiteko.

Guztira, hemezortzi bertsolari pasako dira finalurrekoetara.



Itoizteko Solidarioak-ek astelehenean eman zuten prentsaurrekoa. ITOIZ-ARTOZKI



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Prada

Aurreko gaira itzultzeko asmoz beste diseinatzaile baten istorioa azaltzen saiatuko naiz, Mario Prada. Bere zigiluak 110 urte darama moda munduan. Esaterako, aurreko astean "Milan Fashion Week"-en parte hartu zuten.

1913. urtean sortu zen Prada etxea. Hasieran akaberen kalitateari eta larruarekin egindako lan onari esker egin zen ospetsua. Horrenbestera zen bere ospea, Italiako Errege Familiaren hornitzaile ofiziala bihurtu zela. Pradak lekua egin zuen *Jet Set*-aren eta Europako esfera altuenen artean, eta egonkortu egin zen. 1978an Marioren bilobak, Miuccia Pradak, enpresaren zuzendaritza artistikoaren gidaritza hartu zuen urrats bat haratago eramateko prest, eta hala egin zuen.

Pradarena ez da kasualitatea modaren munduan bizitako azken iraultza. Miuccia Zientzia Politikoetan doktoratu zen, sinaduraren zuzendaritza hartu baino lehen. Alderdi Komunistako militantea izen zen gaztetan, eta familia inguratutako errebeldea, bere zentzu

politikoa bere lanetan nabarmendu zen, eguneroko janzkerari garrantzi politikoa emanez. Ia ezertarako astirik ez dagoen mundu honetan, "arropa tresna boteretsua izan daiteke", ziurtatzen zuen berak. "Modaren eta janzkeraren inplikazio sozial hori guztia da gaur egun benetan interesgarria iruditzen zaidana, eta, egia esan, inor ez da kezkatzen hori aztertzen, suposatzen baita gure lana inozoa eta esnoba dela" ziurtatzen zuen.

Berarekin batera sartu zen bere nylon ospetsua eta, 80ko hamarkadaren erdialdean, prêt-à-porter delakoa. Ordutik, eta batez ere XX. mendeko azken urteetan eta gaur egun arte, denboraldi bat bestearen atzetik modaren erritmoa markatzea lortu du, imaginario kolektiboan dauden elementuak biziberrituz.

Bere proposamenen edertasuna gertagaitzak itxuraz bateraezinak diren ideia eta jantzien gainjartze bat du oinarri, baina bere bildumetan zentzu osoa hartzen dute eta arau bihurtzen dira.

'Artezki', hogeitau urte ondoren ikusgai

Artozkin galdutzat ematen ziren 31 artelanetatik hamalau berreskuratu dituzte Itoizteko 'solidarioek', tartean Jose Mari Anda bakaikuarraren lan bat dago. 'Artozki-Artezki' erakusketa mustu dute Iruñeko Geltokin

SAKANA

Itoizteko urtegiaren proiektua geldiarazteko Itoizteko eta Artozko herrien defentsaren hogeigarren urteurrena bete da aurretik. "Ehunaka lagunek jarraitu zioten Itoizteko Solidarioak taldearen deia, modu batera edo bestera, herri horiek defendatzeko", azaldu zuten 'solidarioek' urriaren 2an, astelehenean, Iruñeko Geltokin egindako prentsaurrekoan. Haietako bat *Artozki-Artezki* proiektua izan zen, "herri sorkuntzarako, kulturarako eta arterako gune bihurtzeko". Artozko eliza museo "bizia" bihurtu zen, eta hogeita hamarretik gora artelan, argazki, liburu eta disko bildu zituzten. Besteak beste, Jose Ramon Anda Goikoetxearen eskultura bat eta Koldo Arnanz Zufiaurre, Dora Salazar Romo eta Beatriz de la Vega altsasuarren koadroak zeuden.

"Sormenerako gune hori eta herri guztia 2003ko irailaren 30eko goizaldean suntsitu zuten, foruzainak eta guardia zibilak sartu

zirenean hondeamakinekin batera. Bi egunehin iraun zuen erresistentzia indargabetuta eta herriko etxe guztiak banan-banan hondakin bihurtuta". Aurretik poliziak artelanak elizatik atera zituztela azaldu zuten, "haietako batzuk, gutxienez, urteetan egon dira bulego ofizialetan". Bi hamarkada beranduago, "modu anonimoan", hamalau artelan eman dizkietela jakinarazi zuten 'solidarioek'. Urriaren 10era arte Geltokin egonen dira ikusgai, eta urriaren 20tik aurrera Agoizko kultur etxean.

Obrak berreskuratu ondoren, "hainbat gogoeta" azaldu zituzten 'solidarioek'. Alde batetik, artelanek "urte hauetan Irati eta Urrobi ibarretako biztanleek eta

GALDUTAKO 31 ARTELANETATIK HAMALAU BERRESKURATU DITUZTE

makroazpiegitura honen kontra geundenok" jandakoaren "metafora krudela" esan zuten. Bestetik, onartezintzat hartu zuten "artelan horien kontrolean zabarkeriaz eta utzikieriaz" jokatu izana: "Hamalau berreskuratu ditugu, baina non daude gainetakoak? Zer gertatu da haiekin? Zein ziren obra horien zaintza katearen arduradunak?". Galdera hauek erantzutea eskatu diote Nafarroako Gobernuari, "eguna iristen denean eta jada erreskatatutakoekin batera Artearen, Memoriaren eta Lurraren Defentsaren Museoa osa dezake, Itoizteko urtegiak suntsitutako ibar eta herrien memoria gordetzeko, Picassoren Gernika margolanak egiten duen bezala". "Gerrako harrapakin gisa" kendu zizkieten gauzen arpilatzea salatzen zuten ere.

Urak hartutako herrien defentsaren hogeigarren urteurrena "ez dela artelanen aldarrikapenera mugatuko" gogoratu zuten ere.



Rosa Iriarte Olaztiko liburuzaina Hazien liburutegiaren txokoa.

Baratzea liburutegian

Olatzagutiko liburutegia Hazien liburutegia da. Nafarroako Liburutegien Sareak sustatutako proiektuari esker norbere baratzetan landatzeko haziak har daitezke "maileguan". Besteak beste, bertako hazien biltegia osatze da xedea

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI
Liburutegietan "fondoak" daude, hau da, liburuez ostatutako apalak alfabetikoki antolatuta, eta gero interes guñeak daude; gai baten inguruan liburuzainek osatzen dituzten txokoak. Olatzagutiko liburutegian, une honetan, bi interes guñe daude, Rosa Iriarte Olaztiko liburuzainak azaldu duenez. Harrera mahaiaren ondoan dagoena feminismoaren ingurukoa da, Lisipe bildumaren liburuekin, eta sarreraren ondoan dagoen mahaiaren azelga, babarrun eta abarren haziak dituzten ontziak daude, "eta hazien, baratzeen eta abarren inguruko bibliografia zehatza dago, baita politikoagoa diren batzuk ere, hazien mundutik eratorri daitezkeen beste-lako irakurketak". Olaztiko liburutegia Nafarroako Liburutegien Sareak sortutako Hazien

liburutegiak programan sartu da eta, besteak beste, haziak maileguan hartzeko aukera ematen du. Proiektuan sartu den Sakanako liburutegi bakarra da.

Hazien liburutegia

"Proiektua ez du Nafarroako Liburutegien Sareak asmatu. Hego Amerikatik dator, bereziki Brasilen hazien inguruko mugimendu oso handi bat dagoelako". Ondoren, proiektua Amerikako Estatu Batuetan garatu zuten eta Europara iritsi zen ere. Gertuko proiektuak Zaragozako Almuniaiko Doña Godinako eta

"KULTURA EZ DA LIBURUTEGIETAN BILTZEN BAKARRIK, GUK KULTURA SOR DEZAKEGU ERE"

Unibertsitate Politeknikoko liburutegien esperientziak dira.

Hazien liburutegiak proiektuaren oinarrian dago liburutegi bat ez dela bakarrik liburuak, aldizkariak, DVDak eta abarrak maileguan jartzeko espazio bat, "azken urteetan sareak e-biblio eta e-film bidez mailegu digitalak eskaintzen ditu ere", baizik eta "kultura demokratizatze" espazio gisa ulertu behar dira; ikuspuntua zabaltzen da. "Dohainik eskaintzen den zerbitzu bat, kultura herritar guztiari eskaintzeko, eta kultura ez bakarrik liburutegian bildu daitekeen zerbaiten modura ulertuta, guk ere sor dezakegu kultura". Filosofia horretatik abiatuta Nafarroan haziei, baratzei eta lurrari lotutako kultura handia zegoela konturatu ziren, "eta guk ondasun inmaterial hori berreskuratzen nahi dugu". Liburutegiek ere

dokumentazioa biltzeko, bermatzeko, zaintzeko eta hedatzeko ardura dute.

Liburuekin, aldizkariekin edo DVDekin egiten den bezala, Hazien liburutegian ere haziak har daitezke "maileguan": "Logika litzateke haziak eraman ditzakezula dohainik, erein egiten dituzu, zortzarekin landarea hazten da eta hartutako materialak bezala itzuli behar direla, ideia izango zen haziak bueltatzea ere". "Zaila" dela jakin arren, proiektuaren helburua da bertako haziak lortzea: "Hartutako haziekin Olaztin tomate goxoak lortzen badituzte, hazi horiek gero bueltatzen badira, Caparrosoko liburutegian ere hartzeko aukera izan dezakete". Olaztiko liburutegian 25 hazi dituen armairu bat dago, maileguan daudenak. Haziak Nafarroako Hazien Sarearen donazioak dira. Besteak beste, Bakaikuko eta Lakuntzako haziak daude.

"Hazien liburutegien mapa osatu zen, eta ahalik eta geografikoki sare handiena lortu nahi zen". Mendialdean bakarrik Olazti eta Leitza dago, eta Iruñerrian eta Erriberan biltzen dira Hazien liburutegi gehienak. "Saretik animatzen gintuzten proiektuan sartzeko, eta justu Olaztin hasi nintzenez proiektu hau garatzen hasi zen, eta pentsatu nuen Sakanan ere baratzeakiko eta lurrarekiko kultura zegoela, eta ongi egongo zela gutxienez liburutegi bat egotea", azaldu du Iriartek. Liburutegi Sareko edozein pertsonak har ditzake haziak maileguan, liburuekin gertatzen den bezala.

Proiektuaren barruan Mintegi bloga ere sortu dute. Bertan hazien inguruko kultura "mantendu eta zabaldu" nahi da. "Gure ahaztutako ahotsen hazitegia deitzen diote, eta baratzei, eguraldiari, hilabetei eta abarri lotutako esamoldeak eta esaerak jasotzea du helburu". Horren inguruko esamolde "pila bat" dago, kultur handi bat dago, esaterako, Azaroa lohitsu urtea garitsu: "Agian badago Olaztin edo Lakuntzan bertako esamolde bat eta ja-

"HAZIAK, ONDASUN INMATERIAL HORI, BERRESKURATU ETA MANTENDU NAHI DUGU ERE"

kintza hori mantentzeko modu bat da. Bakoitzak dakiena eman dezake".

Hazien kultura sustatu nahian Olaztiko liburutegian ere ekimenak antolatu ditu Iriartek. Urriaren 4an, asteazkenean, Ines Bengoak Amaia eta Amaia eta Martin barazkien jaia kamishibai kontaketa egin zuen eta urriaren 26an, osteguna, Atrapavientos. Plantadores de historias tailerra izanen da, 17:00etan, liburutegian. "Zaragozatik datorren elkarte batek emanen du, eta hitz gehiago sortzeko hitzak landatu daitezkeen ideien ingurukoa da tailerra.

Mende erdia

Hazien liburutegia proiektuak ia bat egiten du Olaztiko liburutegiaren 50. urteurrenarekin. Atzera eginez, Nafarroako lehenengo liburutegiak Altsasu eta Miranda de Argakoak izan ziren, duela 70 bat urte. Ondoren, 1950ean Nafarroako Liburutegi Legea sortu zuten eta 1.500 biztanle baino gehiagoko herrietan liburutegi bat izateko beharra onartu zen. 1952. urtean Olaztiko liburutegia sortu zuten, "udalak ere ekonomikoki aukera ikusiko zuten". Liburutegia Nafarroako Gobernuak da, baina egoitza udalarena da. Hiru egoitza izan ditu Olaztiko liburutegiak, eta oraingoa, kultur etxearen goiko solairuan dagoena, 2000. hamarkadaren hasieran ireki zuten.

50. urteurrena modu xumean ospatu zuten. Olaztiko eskolako ikasle guztiak liburutegitik pasa ziren eta kultur etxearen atarian, kanpoko aldean, maileguan hartutako materialak itzultzeko postontzia jarri zuten. "Egia esan udalarendako inbertsio nahiko handia izan zen bereziki horretarako egin zutelako Kataluniako enpresa batean". Bestetik, liburutegia ireki eta ia hogeitau urte beranduago plaka jarri zuten. Logoan ere ikutu txiki bat egin zioten urteurrenari.

Udazkena liburutegiaren sasoi nagusia izaten da. "Ikasturtea hasten denean ikasleak gogo eta ilusio gehiago dute-edo". Eguraldiak ere asko markatzen du, "telebista kasko inalanbrikoekin ikusteko aukera dago, liburutegi guztietan ez dagoena, eta gazte eta haur pila bat etortzen dira". Liburuei dagokienez "gehienbat" nobela beltza irakurtzen dute olaztiarrek, eta "gehien-gehiena" gartzelaniaz.

11 GALDERA



Jesus Aiestaran, Iñigo Zelaia, Haizea Galarza eta Saioa Zelaia, Katxarro Eguneko antolatzaileak, zozketatuko duten Cadyarekin.

"Zozketatuko dugun Cadya modan dago orain"

Urriaren 14an VI. Katxarro Eguna ospatuko da Bakaikun. Antolatzaileek katxarro bitxiak eta sorpresa politak iragarri dituzte. Nobedade gisa, arratsaldean DJ emanaldia izango da

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

1 Zer da katxarro bat?

Erabilgarria den edozein traste edo tramankulu.

2 Zergatik hasi zineten Katxarro Eguna antolatzen?

Mota guztietako katxarro, trasteen eta klasikoak zaleak gare-lako, saltsero hutsak garelako eta Bakaikun "katxarero" hutsak garelako: katxarro asko ditugu, eta gustuko ditugu.

3 Seigarren edizioa urriaren 14an 10:00etan hasiko da, klasikoak topaketarekin. Zer egongo da?

Autoak, bizikletak, kamioiak, motorrak, lan tresnak, nekazal tresnak... Trikitixa zahar batzuk ekarri behar dituzte, lan egiteko urrezko mailuak... denetarik. Beti egoten da sorpresaren bat.

4 Momentuz zenbat partaidek eman dute izena?

180 baino gehiagok. Izena emateko azken egun hauetan izaten

da mugimendu handiena. Nafarroatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Arabatik datoz gehienak, baina Zaragozatik eta Soriatik ere batean bat hurbilduko da. Sakandarrak, hogeiren bat inguru. Klasikoak zaleak gazteak eta helduak dira, denetatik. Haurrak ere etorri izan dira.

5 Zein da orain arte izan duzuen katxarorik bitxiena?

Autoetan, agian 1935eko Austin Sever Ruby zahar bat. Baina oro

har, katxarro guztiak dira bitxiak. Iturmendikoez behin ekarri zuten trilladora ere ederra izan zen. Aurten ere zerbait ekarriko dutela esan dute.

6 Antolatzaileak, katxaroren bat eramango al duzue?

Hemen ditugun katxarro hauek -Bultacoa, Ossa, BMW autoa...- gureak dira eta ikusgai jarriko ditugu, jakina. Iruñetik Seat 600ak ekarriko dituzte, Sopelatik Volkswagen Karmann bat, Muruelo de la Sierratik (Soria) Seat 124 familiarra... Nobedade gisa, oso zaharra den Ford T autoa ekarriko dute, ikusteko zaila dena. Zaragozatik sei gurpileko C15 autoa etorriko da, eta Formula bat eta Avia eta Mercedes kamioiak ere ekarriko dituzte.

7 Auto elektrikoak hitz egiten ari den honetan, halako klasikoak izatea gerok eta zailagoa da?

Izatea, ez. Lortzea, bai ordea. Oso kotizatuta daude. Eta piezak lortzea, autoaren arabera, zaila da. Zozketatuko dugun Mobylette Cady motorrak, esaterako, modan daude eta prezioa sekulakoa da. Vintage edo klasikoak den guztia gerok eta garestiagoa da.

8 Nondik ekarri duzue zozketatuko duzuen Mobylette Cadya?

Leitzatik, aiton batena zen. Bitxia da, palanka letra idatziz markatuta du: "abierto, cerrado, reserva". Paperak indarrean ditu eta ITV-a pasatu du. Beraz, txartelak erosi eta tokatzen zaiona motorean ibili ahalko da lasai asko. Orain arte Velosolex motorrak zozketatu izan ditugu. Motor hauek Eibarren egiten ziren, eta motorra aurreko gurpilean zuten. Hasieratik hasi ginen katxarro-

ren bat zozketatzen, eguna girotzeko, jendea tentatzeko eta, azkenik, hurrengo edizioak aurrera atera ahal izateko.

9 'La Casa de Papel'-eko Ahikar Azkona aktoreak Katxarro Eguneko zozketa iragarri du bere Sare Sozialetan.

Ahikar motorzalea da, eta Iñaki Viñarasekin etorriko da, bazkal ondoren Bakarrekoetxea elkarrean musika jartzera. Discodelia DJ taldea osatzen dute, eta hileta auto klasiko batean hurbiltzen dira euren musika sesioak eskaintzera. Orain arte, goizeko topaketaren eta autoen ibilbidearen ondotik, herri bazkariarekin despeditzen zen Katxarro eguna (bazkarirako sarrerak salgai daude 680 825 557 telefonoan edo Instagramen). Baina, aurten, eguna luzatzeko gogoz, 18:00etatik 2:00ak arte Discodelia DJ taldearekin musika egongo da.

10 Zein izango da auto klasikoek eguerdian Sakanan egingo duten ibilbidea?

Normalean Lizarrusti aldera edo Lizarraga aldera jotzen dugu, Arruazuraino heldu izan gara... ikusiko dugu. Argazkilariarekin adosten dugu, argazkilari batek ibilbidean ibilgailu guztiei argazkia ateratzen dielako. Argazki hori hurrengo urtean bidaltzen diegu, gonbidapenarekin. Detalle polita da, eta eskertzen dute.

11 Jende asko hurbiltzen da Katxarro Eguna.

Bai, normalean herria betetzen da. Espero dezagun aurten ere eguraldiak laguntzea eta hala izatea. Jendea anima dadila, katxarro kuriosoak ikusiko dituztelako. Giro ederra egongo da.

EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

Diseinu, eredu eta formatu ezberdinak. Aukeratu zurea!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Zure argazkia hemen!

gik
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f □
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu